



Herrietako Bestak

Igantzí eta Urroz

HEZKUNTZA → 10

5.250 ikaslek ikasturtea hasi dute eskualdean

BESTA TTIKIAK → 22/34

Doneztebe eta Amaiurren asteburu honetan

LEITZA → 30

Guardia Zibila beste hamar urtez Maxurrenean

SENPERE → 37

Guden 200. urteurrena oroitu dute igandean

Agoitz IRAZOKI | Hondarribia Arraun Taldeko arraunlaria

Kontxako bandera zati bat Lesakan

Kasualitatez hasi zen arraunean, eta sei urtera Donostiako Kontxako Bandera ospetsua irabazi du Hondarribia Arraun Taldearekin. → 40



EMAKUMEAK HERRI KIROLETAN | Baztan Bidasoa Gure Kiroletako Kluba



ERREPORTAJEA → 4-5

Herri kiroletako plazetan ere emakumeek badute lekua

ARGAZKIA:
JUAN CARLOS IRIGOIEN



Jesus Mari SEIN | Igantziko azken saskigilea

«Igantzín 30 saskigile izatera ailegatu ginen»

Herriko mutiko gehienak bezala, gaztetan hasi zen saskiak egiten, eta orain, herrian eta inguruan gelditzen den azken saskigilea da. Omenaldi gisa, aurtengo Igantziko bestetako txupinazioa berak botako du.

ELKARRIZKETA → 3

BERTSOLARITZA

Bertsolari Txapelketa Nagusia abiatzeaz

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren XVI. edizioa irailaren 29an hasi eta abenduaren 15ean bukatuko da. 14 saio egingen dira, horietako bat azaroaren 23an Elizondon. → 36

ZOKKETAK → 48



Txartela egiteko
deitu 948 63 54 58ra

Kontrabandisten festa IBARDIN

2013 / IRAILA / 27

15.30 18:30ak arte, Ibardingo 1. Longboard/patinete eskola
8 eta 14 urte bitarteko neska-mutilentzat
Haurrentzat jolasak, Ibardingo abentura parkean

2013 / IRAILA / 28

9.30 Kontrabandisten ibilaldia.
Oinezko martxa arautua (Mantalek antolatua)
9.30 1. "IBARDIN" Mini Down Hill Free Ride Longboard
txapelketa Patinetetan jeitsiera txapelketa (egun guztian)
11.00 Musika animazioa
12.30 Haurrentzat jolasak eta animazioak
(abentura parkean)
12.30 Sagardo txotxa eta pintxoak
12.30 Dantza jaialdia
12.30 Kontrabandistaren menua (Bentetan)
15.30 Trikitilariak
16.30 Musika animazioa
17.30 "IBARDIN" Mini Down Hill Free Ride Longboard
txapelketaren finalak
20.00 Sari banaketa eta Disc Jockeya



Bertsolari
Txapelketa
Nagasia 2013

KANPORAKETAK

AMASA-VILLABONA

Behar-Zana pilotalekua
Irailak 29, 17:30ean

MARKINA-XEMEIN

Udal pilotalekua
Urriak 5, 17:30ean

HENDAIA

Beltzenia ezker pareta
Urriak 12, 17:30ean

ALTSASU

Burunda pilotalekua
Urriak 13, 17:30ean

LEGAZPI

Urbeltz pilotalekua
Urriak 19, 17:30ean

OION

Arroyo I pilotalekua
Urriak 26, 17:30ean

www.bertsosale.com

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEA



Eskuak ditu lanabes eta zumitza lehengai. Milaka saski egina da Jesus Mari Sein igantziarra bizitza osoan zehar. Herriko mutiko gehienak bezalaxe, gaztetan hasi zen sas-

kiak egiten eta orain arte segitu. 81 urterekin, herrian eta baita inguruan ere gelditzen den azken saskigilea da. Horregatik, irailaren 27an Igantzin omenaldi tiki bat eskainiko

diote herritarrek, berak botako baitu bestetako altxaferoa. Iraganeko kontuetaz, etorkizunaz eta desagertzeaz den lanbide honen sekretuetaz solastu dugu berarekin.

Jesus Mari SEIN | Igantziko azken saskigilea

«Orduka kobratu izan bagenu, aspaldian aberastu izanen ginen»

E. IRAOLA | IGANTZI

Noiz hasi zinen saskigile lanean?

Hamabost urterekin hasi nintzen saskiak egiten. Baserrian bizi ginen eta sosa batzuk lortzeko modua zen. Herriko etxe gehienetan zeuden orduan saskigileak, Igantzin 30 izatera iritsi ginen. Komeriak ere izan ziren gehiegi ginelako. Baina urteak aitzinera egin ahala, gauzak aldatzen joan ziren. Saskigile ziren aunitz Ameriketara edo Frantziara joan ziren edo Lesako Laminaciones enpresan, mendian... hasi ziren lanean. Ordu gutxiago lan eginda, gehiago irabazten zutelako. Ni ere ibili nintzen zortzi urtez mendi lanetan baina berriro ere saskiak egitera itzuli nintzen.

Zein da saski bat egiteko sekretua?

Kaskarroa handia behar du saskiarekin hasteko. Ordu pila behar dira, ez da egiten golpean. Materiala lortuta, labean egosten dugu eta gero zumitzak banan-bana atera behar dira, kontuz puskatu gabe. Gure makina eskuak dira, hariari segika lan eginez. Gero moldearen gainean, ipurditik hasi eta pixkanaka gorantz joan behar da saskia osatu arte. Garai batean, hamalau ordu sartzen genituen egunero. Astean saski ko-



ARGAZKIA: E. IRAOLA

Jesus Mari Sein Igantziko bere tailerrean, zumitza eskuetan, saskia egiten.

puru bat zehaztu eta hura egin arte ez nion atsedunik ematen nire buruari. Goizeko bostetan hasi eta arratsean hamarretan bukatzen genuen, gelditu gabe, bestela ez zegoelako irabazirik. Orain lasai egiten ditut, kapritxora.

Saski mota aunitz egin izanen dituzu dagoeneko...

Arrain saskiak eginez hasi ginen. Pasaiaetik etortzen ziren aitonak erostera. Zakarra izanda ere ez zuen inporta, saski azkarrak eta handiak nahi izaten zituzten. Saskiak ipurdi ona ote zuen begiratzen zuten eta ona ez bazen, agudo erraten ziguten, *hau hiretzat*. Ho-

LAN SISTEMA

«Kaskarroa handia behar du saskiarekin hasteko. Ordu pila behar dira, ez da egiten golpean. Materiala lortuta, labean egosten dugu eta gero zumitzak banan-bana atera behar dira esku-tara. Gero moldearen gainean lan eginez, ipurditik hasi eta pixkanaka gorantz joan behar da. Garai batean hamalau ordu sartzen genituen egunero. Astean saski kopuru bat zehaztu eta hura egin arte ez nion atsedunik ematen nire buruari».

rietaz gain, laborantzarako egiten ziren gehienak, patata, sagarra, artoa... biltzekoak, astoentzat... Etxeetara harrikatza eramateko meharrago batzuk ere egiten nituen. Okinarentzat ere bai eta diputaziorako saski tikiak ere egiten nituen eskuz brea botatzeko erabiltzen zituztenak. Orain berriz, saski tikiak egiten dira gehienbat, gabonetan umeek ibiltzen dituztenak edo perretxi-koetarako.

Zein dira lanbide honen zailtasunak?

Hasteko, orain materiala lortzea zaila da. Lehen saskigile pila bat zegoen ez zegoen arazorik, gaztaina botatzen badu-

zu, lauzpaborts urterako berriro ere mozteko prest egoten baita. Duela 60 urte inguru, Igantzi eta Sunbilla arteko mendioso bat, 60 hektarea baino gehiago erabiltzen genituen materialetarako. Orain inor ez duenez botatzen, ez da etortzen. Batzuk kanpotik ekartzen dute, baina ez dauka kalitate bera. Trabarik handiena, sartzen den ordu pilarako irabazi gutxi ematen duela da. Gainera ziria ere sartzen digute, dendairien bati nik prezio batean saldu eta gero beraiek saltzerakoan prezioa bikoiztu egiten dutela ikusi izan dut.

Lanbideak badu etorkizunik?

Ezetz erranen nuke. Bortzirietan bakarra naiz eta Nafarroa mailan ere gutxi gelditzen gara. Gazteak saskigile lanbidea desagertzera doala ikusita penatu bai, baina inork ez du pausoa ematen. Egia erran ez da harritzekoa, lanbide honetatik ez baita inor bizi. Orduka kobratu izan bagenu, aberastu izanen ginen aspaldian, baina ez da hala gertatu. Gainera saskia ere ez da lehen bezala saltzen, ordeko produktu aunitz daudelako plastikozkoak adibidez. Beraz, ni falta naizen egunean, lanbidea ere desagertu egingen da, ez dagoelako segida emanen dion inor.



ARGAZIAK: JUAN CARLOS IRIGOIEN ETA E.IRAOLA

Trontzan, harri-jasotzen, txingekin... maila bikaina erakutsi dute txapelketa eta erakustaldietan Baztan Bidasoa Gure Kiroletako Klubeko neskek.

KIROLA →

Herri kiroleko plazetan ere emakumeek badutelako lekua

Baztan Bidasoa Gure Kiroletako klubean zazpi emakume ari dira entrenatzen

Aurreiritzi eta estereotipo aunitze-kin topo egin dute, baina *arian arian xehetzen da burnia*. Gustoko duten horretan trebatzen ari dira eta dagoeneko lortu dituzten sari

pila dira lan horren adierazle. Taldearen babesa azpimarratzen dute guztiek, bakarka aritzea baino errazagoa baita besteen babesean bidea egitea.

Eneritz IRAOLA

Duela zortzi urte inguru sortu zuten Oronoz-Mugairin Larretxea anaiek Baztan Bidasoa Gure Kiroletako Kluba. Herri kirolean aritu nahi zuenari «taldean entrenatzeko aukera emateko» asmoz hartu zuten erabakia. Hasiera hartan taldekide guztiak gizonezkoak ziren arren, pixkanaka portzentajeak aldatzen joan dira eta egun, «ema-

kumez oso aberatsa» den taldea osatu dute, 14 gaztek entrenatzen dute bertan eta erdiak emakumeak dira.

HASIERA

Zerotik hasi ziren gehienak. Trontza, aizkora, harriak edo txingak urrutitik ikusita zituzten baina esku artean hartzeoak. Binaka edo bakarka jo zuten Oronoz-Mugairiko lokalera eta lehenengo aldi haietaz

galdezka hasita, antzeko esaldiak errepikatzen dituzte «hagitz gogorra iruditu zitzaizdan», «hurrengo egunean ez nintzela itzuliko esaten nion nire buruari». Ez zen hala izan ordea, itzuli egin ziren hurrengo egunean eta baita hurrengoan ere. Hala, beteranoenek lau urte daramatzate dagoeneko eta hasi berriek zortzi hilabete. Guztien «bizitzaren parte» bihur-

tu dela diote, «entrenamenduren batera huts egiten badugu, faltan botatzen dugu. Kirol hau terapia bihurtu da. Gorputzari astindu eder bat emanda, beti zoriontsu bueltatzen gara etxera» erran digute neskek. Larretxeak gaineratu digu, «oso azkarrak» izan direla beraien funtzionamendua hartzen eta horren zergatia argia dela uste du «herri kirol munduan sartzeko nahia eta ilusioa nabari zaizkie eta emakume indartsu eta borrokariak dira, ez dira erraz ikaritzen». Neskek horretaz gain, taldeak emandako «laguntza» azpimarratzen dute, be-

reziki Patxirena, baina baita taldeko beste mutil eta laguntzaileena ere, «familia bat gara dagoeneko eta lehenengo egunetik sentitu dugu hori». Entrenamenduetatik kanpo ere nabaria den giro ona, Oronoz-Mugairiko lokaleko goiko pisuan duten sukaldeko mahaiaren bueltan elkartzen baitira aunitzetan «entrenamendu on batek, afari eder bat merezi du» diote barrezka.

MODALITATE DESBERDINAK

Hasieran kirol modalitate batean zein bestean probatzeko aukera izaten dute «bakoi-

tzari hobekien zein ego-
kitzen zaion jakiteko». Izan ere, «ideia batekin etorri eta batzuetan bertze kirol batean hobekiago moldatzen direla ikusten dute» azaldu digu Larretxeak. Horretaz gain, erakustaldiak egiteko ere, kome-
ni da kirolari bakoitza «modalitate bat baino gehiagotan trebatua egotea, aukerak zabaldu eta joko gehiago ematen duelako».

BERDINTASUN EZA

Egiten duten lana lo-
kaleko lau paretetatik haratago zabaltzen sai-
atzen dira eta sona ge-
hiena txapelketek ema-
ten dieten arren, «era-
kustaldietan parte har-
tzea ere beharrezkotzat» jotzen dute «plazara ir-
ten eta kirolean goza-
tzeko aukera» ematen dietelako «txapelketa-
ko presio eta urdurita-
sunetik kanpo». Auke-
ra bai, baina nahi baino
ttikiagoa dela salatzen
dute taldekideek «bes-
tetako kartelei begira-
tzea nahikoa da berdin-
tasun ezaz konturatzeko. Herri kirolak anto-
latzen dituztenean ema-
kumeak falta dira asko-
tan». Eta hor agertzen
dira beren hitzetan bi-
deko aldapa gogorre-



TALDE IZAERA

«Gure artean talde izaera oso estua sortu da. Nik argi daukat, Patxi eta taldeak herri kirolean segi bitartean, nik ere ahal badut segi egiten dudala».

Xanta SOUZA

netakoak «erraztasunik ez badigute ematen, be-
ti gabiltzalako bulkaka, bortxaka bezala».

EMAITZA BIKAINAK

Baina ez dute etsiko eta orain arte bezalaxe, emaitza bikainek isila-
raziko dituzte mingainik zorrotzenak. Orain ar-
teko palmaresean di-
tuzte Nafarroako eta Euskal Herriko arpana eta txinga txapelketako lehenengo postuak.

Etorbizunean ere go-
gor lanean segiko du-
te, plazetan gizon eta emakumeentzat, bien-
tzat, nahikoa leku ba-
dagola erakutsiz.



IKASGAIK

«Zerbait egiten ez dakigula edo zerbaitetarako balio ez dugula esan aurretik saia-
tu egin behar dela erakutsi digu entrenamendu bakoitzak».

Itxaso ONSALO



SENTIPENAK

«Batzuk ulertzen ez duten arren, herri kirolean arituta zoriontsu gara. Kirolari eta taldeari lotuta sentitzen gara eta aldi berean gure buruarekiko aske».

Leire ASTIAZARAN



TALDEAREN LAGUNTZA

«Materiala lortu eta landu egin behar da entrenatzen hasi aurretik. Taldean ari-
tuta, elkarri laguntzen diogu eta horrela lana ez da hain nekeza».

Nerea IZUZKIZA



ASKE SENTITZEKO

«Entrenatzera etortzea, burua egunerokotasunetik ateratzeko modua da, ihes egiteko bidea. Denok beharrezkoa dugun terapia bihurtu da».

Estitxu ALMANDOZ



LORTUTAKO EMAITZAK

«Hasiera ez zen erraza izan, herri kirolean hasi behar duzula, nolatan eta zertara-
ko? galdetzen zidaten. Baina gu kontent ikusita denak kontent dira orain».

Nerea SORONDO



KRITIKAK

«Herri kirolean aritzen garela esatean, jendea harritu egiten da. Baina kri-
tikei kasu egiten bagenie ez ginateke hemen egonen, pascio egin eta kitteda».

Amaia GARTZIA

Patxi LARRETXE, BAZTAN BIDASOA GURE KIROLETAKO KLUBA Taldeko entrenatzailea

«Bazterretik talde polita osatu dugula diote, baina gero jorrazteko inork ez du ematen ondora lurrik»

Herri kirolean aritu nahi dutenei ater-
pea eskaintzen diete Oronoz-Mugairin,
«gizon edo emakume, herri kirolean ari-
tu nahi duten guztientzat ditu irekita ate-
ak. Ez da egin behar zu ahariko hara, zu
urruxa hona» azaldu digu Larretxeak. Tal-
de lana eta berdintasuna bihurtu dira
Baztan Bidasoa Gure Kiroletoako kluba-
ren giltzarriak, «entrenatzen hasi au-
rretik eta ondotik egin beharreko pres-
taketak denon artean egiten ditugu. Ema-
kumeek ez dute egin behar gizonezko-
ek baino gehiago eta ezta gutxiago ere.

Inor ez da bazterrean begira egoteko
etortzen hona, taldea gara eta batera ari-
tu behar dugu». Herri kirolean ari direnei
benetako babesa eman beharko litzaie-
kela aldarrikatzen du «plazara joanez,
baina baita erakundeetatik bultzatuz ere».
Bere ustez, aunitzetan «emakumeen ki-
rola bultzatu behar dela esan baina guztia
putzu huts batera erortzen baita. Hitzez-
ko babesa lortzen da, baina bertzelako-
rik ez». Dena den «etorkizun gero eta ho-
bea» ikusten duela dio, «beharrezkoa
den babes hori lortzen badute, kirolari



Patxi Larretxea.

aski onak ditugulako gurean». Lanean
segi besterik ez dago, «tiki taka» herri ki-
rolaren eta berdintasunaren plazetan ira-
bazle irteteko.



Nire txanda
Koro IRAZOKI

Odol kontuak

Drakulak bizirik irauteko, bertzeen odola behar omen zuen. Gauetan bere gaztelutik atera, eta bilatzen zuen nori zurrupatu odola. Bistan da jendeak Drakularengandik eskapo egiten zuela. Eta gaur egun ere badago, bizi ahal izateko, bertzeen odola behar duen jendea... baina Drakulari bezala, hauei ere gure odola ukatzen diegu. Zer ote du herriz-herri ibiltzen den odol-emaileen autobus horrek?... ez du ba Drakularen gazteluaren itxurarik. Zer ote dute odola ateratzen duten enfermera hoiek?... izigarri sinpatika eta atseginak dira ba. Deus ikustekorik Drakula itsusi eta gaixto horrekin. Zer ote du, odola ateratzeko, besotik sartzen duten orratz horrek?... aahh!!!! Uste dut hor dagoela koxka!!! Drakularen letaginak haragian sartzen ziren gisan, orratz hori ere gure besoan, zast sartzeak, beldurtzen gaituela uste dut. Beldur hori ulergarria da. Baina bere bizitza galtzeaz duen pertsona bat salbatzeko, besoan ziztada ematea nahikoa bada, nik garbi daukat: itxi begiak eta luzatu besoa. Odol-emaile egin zaitez!!!

Ezpala

Aitor AROTZENA

Maxurrenea "demokratentzat"

Alferrik izan zen Jose Perurena zenak Maxurrenea Amazabal patronatuari ematea ongintza eta hezkuntzarako; alferrik leitzarrek bere borondatea behin eta berriz adieraztea udalean, sinadura bilketetan, manifestetan...; alferrik Nafarroako Parlamentuak etxea herritarrei bueltatzeara eskatzea. Espainiako Barne Ministroak dio, demokraziaren izeanean, beste 10 urtez erabiliko duela Guardia Zibilak.

Nabarmentzekoak



Agoitz IRAZOKI
Arraunlari lesakarra

Arraunaren Olinpiada omen da Donostiako Kontxako Bandera eta Bidasoko traineruan, Hondarribian irabazi du lesakarrak. Eskualdeko arraunlari batek irabazten duen lehen aldia da.



Juan Julio ODRIOLZOLA
Sunbillaiko ohorezko alkate

Sortzez kubatarra bada ere, ezkontza bidez sunbilla beldartu eta ehun urte bete dituen oho-rezko alkate izendatu du Sunbillaiko Udalak eta omenaldi beroa eskaini dio irailaren 5ean.



Jorge FERNANDEZ DIAZ
Espainiako Barne Ministroa

Leitzako kuartelera etorri da bixitan irailaren 9an, zertarako eta herri-tarren borondatearen kontra, Maxurrenea beste hamar urtez Guardia Zibilak erabiliko duela esateko.

Atzera begira → 2003.09.18 / TTIPI-TTAPA 358 zbk.



Joxe Mari Apezetxea Erratzuko margolariarekin solasean

«Lehenbiziko intentziotik ateratzen diren koadroak izaten dira hoberenak». Halaxe aipatu zigun Joxe Mari Apezetxea margolari erratzuarrak duela 10 urte. 76 urte zituen orduan eta bizitza osoa zeraman margotzen. Denborarekin margotzen ikasi eta hobetu egiten dela zioen: «Nire lehenbiziko lanek ez dute ja ikustekorik azkenekoekin. Aunitz dut ikasteko oraindik eta ongi naizen artean koadroak margotzen segituko dut». Apezetxeak zioenez, «ni errealitatearekin inspiratzen naiz baina koadroa margotzerakoan aldatu egiten dut berez ikusten dena. Horrela, nire pertsonalitatearekin nahasiz sortzen dut koadroa».



Argitaratzailea Ttiipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttiipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneitz Iraola **Publizitatea** Usua Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerediain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraalde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia
Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitzza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Malerreka Zerbiztu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	40€	Europa	59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Ipar Euskal Herria	59,50€	Amerika eta Australia	124€	Leitzza	17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Krisitik ateratzen edo krisian sartzen?

Pello APEZETXEA

Hondar urteetan maiz entzuten eta aipatzen dugun solasa dugu krisia. Krisia, ordea, ez da solasa bakarrik, errealtatea ere bai. Baina, zer da mintzatzean adierazten dugun krisia? Zer errealtate da bizi duguna? Errazak iduri dute galdemodu hauen erantzunek. Edozeinek ikusten du lana gutitzen ari dela, bizimodua garestitzen eta diru sarrerak tikitzen, anitz ikastetxetan eta erietxetan zerbitzuak gero eta eskasagoak gertatzen ari direla. Baina hori hagitz desberdin gertatzen ari da. Gure artean ikusten ez dugun hainbat gauza gehiago eta gogorrago ikusten ahal da, lehen mundua deitzen dugun honetan urrunxeago begiratzen badugu: etxebizitzak galtzen, aunitz haur goseak edo erdigoseak, etabar.

Orain krisitik ateratzeaz entzuten da gero eta gehiago. Baina badu krisi honek aterabiderik? Politikan eta ekonomian aginte dutenek baietz diote. Eta luzatu gabe hasiko dela berreskuratzen lana, irabaziak, pentsioak. Lehengora itzultzen. Baina gero eta gehiago ere aditzen dugu ekonomia-larien ahotik ez dela hori gertatuko. Egoera aldatzen joanen dela, bai, baina ez hobera prezeski. Edo, xehekiago erranez, hobera egingen duela batzuentzat, baina okerrera gehienentzat. Hau da, pobre gehiago izanen dela, eta aunitzen bizimodua apalagoa. Aberatsak aberatsago bihurtuko diren bitartean, eta indartsuak indartsuago.

Orduan, zer krisi bizi dugu? Krisi etikoa edo moralala dela erran beharko dugu, batez ere. Ondasun gehienak guti batzuen sakelak betetzea,

gehienena ia hutsik dagoen bitartean, eta hori ontzat edo normaltzat jotzea; edo, gutienez, halabeharrezkotzat hartzea, gizarteko hutsune handiaren seinale da. Izan ere, ez da jendea eskubide berdinez hornitua? Ez du jende guztiak eskubide bera bizitzeko, jateko eta ikasteko? Ez ditu eskubide berak ondasunak eskuratzeko, bere pentsamoldea defenditzeko, bere sinesmena zaintzeko? Errespetu berdina zor zaigu denoi, eta neurri gabeko desberdintasunak onartezinak dira. Hori kontuan izanik, ez dut uste burugabeko deitzen ahal denik izenburua: krisitik ateratzen edo krisian sartzen?

«Orduan, zer krisi bizi dugu? Krisi etikoa edo moralala dela erran beharko dugu, batez ere. Ondasun gehienak guti batzuen sakelak betetzea, gehienena ia hutsik dagoen bitartean, eta hori ontzat edo normaltzat jotzea; edo, gutienez, halabeharrezkotzat hartzea, gizarteko hutsune handiaren seinale da»

Euskararen Etorkizuna

Jexux BULDAIN

Orain gutxi, egunkari batean, euskara egoe-
ra zailean dagoela irakurri dut. Gaztelerak leku handia hartu du gure gizartean eta badirudi, gazteleraren erabilera gorantz doala. Hori horrela izanagatik, nire iritzian, euskaldunak eta espainiarrak desberdinak gara! Euskaldunak, kultura propioa daukagu eta sentimendu propioa ere bai. Askatasunean bizitzeko nahia eta gaia eta bizitzaren erantzukizuna gure gain hartzeko prestakuta gauden gizarte bat gara. Bizitza ulertzen dugu eta jakinduria handiko gizarte bat gara. Guk ez dugu behar, besteek asmatutako dogma edo konstituziorik. Hori dela eta euskara defendatzea mobazio bat da.

Euskara, gure hizkuntza izateaz gain, gure herri-kultura babesten duen baliabidea da. Euskara desagertzen bada, gure kulturaz hitz egitea, historia izango da. Euskara irakasten denean, euskal gizartearen baloreak aipatzea garrantzitsua iruditzen zait. Hizkuntza eta kultura lotu behar dira. Hizkuntza bezala soilik defendatzea, zaila iruditzen zait. Euskarak etorkizuna izatea nahi badugu, denon artean zer-bait gehiago egin beharko dugu. Garbi eduki beharko dugu noraino baloratzen dugun gure herriko ondarea eta berarengatik, zer egiteko prest gauden. Badirudi, euskal gizarteak, gizarte komodo batean bihurtu dela. Alde batetik, daukagunarekin aseta sentitzen garelako, baina beste alde batetik, informazio ezkorren aurrean, erreakzio falta sumatzen dudalako. Honen aurrean, kanpoko erasoei, arauak jartzea ezinbestekoa da. Garbi eduki behar dugu gurean, lehenengo hizkuntza euskara dela eta beste hizkuntza batekin etorri direnak, hori ulertu behar dutela. Herri edo kultura bat, talde moduko bat da eta arazo honi aurre egiteko, talde lana ezinbestekoa da. Gutxi batzuk asko egin baino hobe denak pixka bat egiten badugu.

«Euskara, gure hizkuntza izateaz gain, gure herri-kultura babesten duen baliabidea da. Euskara desagertzen bada, gure kulturaz hitz egitea, historia izango da. Euskara irakasten denean, euskal gizartearen baloreak aipatzea garrantzitsua iruditzen zait. Hizkuntza eta kultura lotu behar dira. Hizkuntza bezala soilik defendatzea, zaila iruditzen zait»

Irakurleak mintzo

Gañecoleta

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ
(Auritz)

Oso harrigarria ba-
dirudi ere, gaur egun,
2013ko irailaren 4an,
oraindik honela irakur
daiteke: GAÑECOLE-
TA, auzo haren bidegu-
rutzean barna igarotze-
an, eta data hau azpi-
marratu dut, gaur hain
zuzen ere, ikusi dudu-
lako errotulu xeibre ho-
ri, azkeneko aldiz orain
arte, Jean Haritxelar
euskaltzainburu ohi jau-
nari, Baigorriin azken
agurra egin eta gero.

Badaezpada ere,
Euskaltzaindiaren Topo-
nimia arloan begiratu
eta honako haxe azal-
tzen du, alegia, Gai-
nekoleta: Izaera: Auzoa.
Ofiziala: Gainekeleta.
Non: Luzaide. Erabaki
maila: Batzordeak onar-
turiko argitalpena. Oha-
rra: hemen biltzen diren
izenak Onomastika ba-
tzordeak emandako
irizpen eta gomendio-
ak dira. Udal, eskualde
eta probintzia izenak
arau maila dute.

Hori ikusita, ematen
du ez dagoela inolako
zalantzarik, nola agertu
beharko lukeen idatzita
izen horrek, baina, aldiz,
gorago adierazi dudan
bezalaxe agertzen da,
hau da, Gañecoleta, eta,

gainera, errotulua oso
zaharkituta dago.

Antza denez, gai ho-
netarako, alfer-alferrik
izan dira Franco dikta-
dorea hil zenetik igaro
diren urte guztiak, eta
baita, demokrazia dei-
tzen zaion honi, joan-
dako denbora guztia .
Era berean, inola ere
ezin da esan Nafarroa
Garaiak izandako lehen-
dakariak asko luzitu du-
tenik beren burua, gu-
re erkidegoko toponi-
mia zaintzen eta mima-
tzen, hots, Barcina,
Sanz, Alli, Otano, Urral-
buru...

Espero dezagun,
Luzaiden eta Gai-
nekoletan bertan, norbaitek
edukitzea aurreko
guztiek baino sentibe-
ratasun handiagoa eta
akats lotsa emangarri
hori behin betiko zuzen-
tzea, Jean Haritxelar
jaun handiarenganako
begirune soilagatik bai-
no ez bada ere.



Bota bertsoa

Laura IGANTZI (Euskal Artzainak Ameriketan)

Ohore zuri euskal artzaina

Hasi baino lehenago
nahi dut zerbait adierazi
artzain baten alaba naiz
eta nahi dut hau irautsi:
Aita lesakarra zen ta
izena zun Angel Yanci,
guzti hau martxan jarri zen
batez ere beregatik;
Gaur zerutikan begira
dago irifar batekin,
seme alaba Amerikara
itzuli garelara ikusiz.

Oraindik gogoan ttuzue
gazte denbora haiek
etxean estutasunak
bizi zenituzten, baietz!
“Ama, etxean laguntzeko
Amerikara banaiek.
Lana gogotik eginez
dirua irautzen omen dek!
Ez zaitez arduratu eta
idortu malko horiek,
nitaz harro egotea,
besterik ez det eskatzen!!”

Californiara iritsita
ah, ze leku arrotza.
Egunaz beroa eta
gabaz sekulako hotza.
Gure gainean daukagu
bakardadearen itzala.
Amataz oroitu eta
estutu zait bihotza,
malko bat begin zintzilik
entzunez aitan ahotsa:
-Seme hire eskutan dago
familia guztiaren poza.

Gure herrira itzuli zinten
sentimendu bikoitzakin
Alde batetik gauz onak,
bertze alde hutsunekin:
Lana gogor eginez
zenuten diruarekin,
ta harro Ameriketan
utzitako fama onakin.
Bainan maiz oroitu han
zeuden adiskideekin.
eta eskertuak hain ongi
hartu zizuen herrialdekin.

Berriro itzuli gara,
oraingoa gozatzeko,
hemengo paraje idorak
berri ere ikusteko.
Familia eta lagunak
aspaldikoz agurtzeko,
hemengo bizimodu hura
gure gogora ekartzeko.
Lortu genuen guztia
nolabait ere eskertzeko,
eta bidenabar gure
senidei irautseko.

Harro egoten ahal gera
egindako paperaz,
artzainak izan bait dira
ongi estimatuak beraz.
Langileak, ausartak eta
hitza betetzen dutenak,
zuei esker fama ona
daukagu hemen euskaldunak
Gure historiaren zati bat
idatzi duzue denak,
ohore zuei ameriketan
artzain ibili zatenak!!


IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.netPosta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net

Kartelak, fakturak, kartazalak, bisita txartelak, egutegiak...

inprimitzen ditugu

Prentsatik bildutakoak



«1 Formula eta MotoGPn erabiltzen duten teknologian oinarritzen gara lan egiteko, txirrindulari-tzarentzat ere baliagarria izan daitekeelako». «Telemetriaren bidez azterketak egiten ditugunean ezusteko handiak hartzen ditugu. Zuzeneko norabidean lanean ari ginela uste izan eta okerreko bide-tik goazela erakutsi digute aunitzetan emaitzek».

Patxi Vila
Specialized-eko aholkularia
D. NOTICIAS 2013.09.09



«Guk oraindik ez dugu jaso azalpen bakar bat ere. Komunikabideen bidez dakigu dakigun guztia, eta zain gaude denok, ez dakigulako ezer... Dena galdutzat emanda geneukan, argi eta garbi esan zigutelako mirariren bat behar zela aurrera egiteko. Eta normalean ez dira gertatzen mirariak, baina oraingoan bai. Nik neuk ez neukan inolako itxaropenik, baina...».

Mikel NIEVE
Txirrindulari leitzarra
BERRIA 2013.09.11

11 galdera labur

Nola aurkeztuko huke hire burua?

Urrozko gazte langile eta saltsero bat, akaso...

Herrian nekazari edo herri-kanpo bertze lanetan nahiago?

Bertze lanak nahiago dizkiat, nekazari izateko afizio haundia behar dik izan, eta lan hagitz lotua duk hori neretzat.

Nondik eta nora mendizale?

Ehiztari ez naukenez, mendizale, inguruko aunitz bezala.

Astebururo parrandan baino gehiago betetzen ahal dik mendiak?

Bai horixe! Zahartzen ari gaituen seinale duk hori...

Zer dik berezia eskalatzeak?

Kirol hontan, fisikoa bezain garrantzitsua duk mentala, burua aunitz ibili behar duk hemen.

Armatatik zintzilik, ez al duk bertigo senti-tzen?

Ez zekiat bertigoa ote den, baina gustatzen zaidak sentsazio hori.

Munduko zein bazterretan eskalatuko huke?

Yosemiten, eskalatzaileen paradisu-duk hori.

Gure herri ttikietan zerbait faltan botatzen ahal duk?

Gauza aunitz! Herri guzietan bada zerbaiten falta; jendea gehigo elkartzea eta gazteak gehiago mugitzea, beharbada.

Gure bazter mendi-tsu berdeak edo zelaietako ilunabar zeru gorriak?

Leku guziek baditek bere xarma, konpainia on batean egonez gero.

Ametz bat?

Falta dizkiagun pertsonak ondoan izatea.

Azkeneko esaldi bat...

Gogoratu, mendiaren gailurra bidearen erdia dukeela.



Jexux MATXINENA → Urrozko gaztea

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

okane
HARATEGIA / URDAITEGIA
Tfn/Fax: 948 630 918
Kantónberri 12 - BERA

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!
Berria erosi taldea

bp
GASOLINDEGIA
DENDA | OGIA | PRENTSA
Ordutegia: 06:00-22:00 egunero
URTE OSOAN IREKIA
Zalain Industrialdea | BERA
948 630 249

ETORRI eta ezagutu gure ESKAINTZA BEREZIAK

HEZKUNTZA

IKASTURTE BERRIA → IKASTETXEETAKO DATUAK

laz baino 141 ikasle gehiago dira ikasturte honetan

D eredia da nagusi

TTIPI-TTAPA

5.250 ikasleekin diote ikasturteari Baztan, Bortziriak, Bertizarana, Malerreka, Leitzaldeia, Urdazubi-Zugarramurdi, Sara eta Senperen, joan den urtean baino 133 ge-
hiagok eta duela bi urte

baino 327 gehiago. Jo-
an den urteko datuekin alderatuz, ia maila guztietan egin du gora ikasle kopuruak, Bigarren Hezkuntzan izan ezik, 2012/2013 ikasturtean baino 23 ikasle guttiago baitira aurten. Hiz-
kuntza ereduetan, Dere-
duak segitzen du ikas-
leen aukera nagusia iza-
ten, nabarmen.

BIGARREN HEZKUNTZA / KOLEGIOA

BIGARREN HEZKUNTZA			
	A eredia	B eredia	D eredia
BAZTAN	34	0	265
Lekaroz-Elizondo	34*		265*
* 2 ikasle behar bereziko taldekoak dira.			
BORTZIRIAK	15	39	250
Arantza IP			9
Bera (Toki Ona)	15	39	199
Bera (Labiaga Ikastola)			42
LEITZALDEA	0	0	147
Goizueta			14
Leitza (Amazabal)			133
MALERREKA	5	0	160
Doneztebe (Mendaur)	5		160
XARETA	149	86	6
Senpere (Arretxea)	149	86	
Urdazubi-Zugarramurdi			6
GUZTIRA	203	125	827
2013-2014 Guztira: 1.155	↓ % -1,95		
2012-2013 Guztira: 1.178			

BATXILERGOA

BATXILERGOA			
	A eredia	B eredia	D eredia
BAZTAN	8	0	117
Lekaroz-Elizondo	8		117
BORTZIRIAK	0	0	103
Bera (Toki Ona)			103
LEITZALDEA	0	0	64
Leitza (Amazabal)			64
GUZTIRA	8	0	284
2013-2014 Guztira: 292	↑ % 5,14		
2012-2013 Guztira: 277			

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAK

2013/2014

HAUR HEZKUNTZA				LEHEN HEZKUNTZA		
	A eredia	B eredia	D eredia	A eredia	B eredia	D eredia
BAZTAN	6	0	269	29	0	482
Almandoz IP			3			12
Amaiur IP			10			27
Arizkun IP			11			31
Arraioz IP			10			9
Azpilkueta IP			0			6
Baztan Ikastola			79			119
Elizondo (S. Fco. J.)	6		80*	29		156*
Erratzu IP			16			24
Gartzain IP			3			9
Irurita IP			33			46
Oronoz IP			15			30
Ziga IP			9			13
* TD ereduak barne, hizkuntz bateratuen programaren barnean daudenak.						
BERTIZARANA	0	0	20	0	0	21
Legasa IP			9			7
Narbarte IP			11			14
BORTZIRIAK	6	12	287	17	39	489
Arantza IP			20			30
Bera (Ricardo Baroja)			60			131
Bera (Labiaga Ikastola)			54			96
Bera (Jesusen Bihotza)	6	12		17	39	
Etxalar IP			25			55
Igantzi IP			19			36
Lesaka (Irain IP)			51*			86
Lesaka (Tantirumairu)			58*			55
* 2 urtekoak barne						
LEITZALDEA	0	0	126	0	0	240
Areso IP			8			18
Goizueta IP			21			41
Leitza IP (Erleta)			97			181
MALERREKA	1	1	169	8	9	314
Beintza-Labaien IP			1			7
Doneztebe (S. Migel)	1	1	106	8	9	214
Ituren IP			26			38
Saldias IP			1			4
Sunbilla IP			35			51
XARETA	91	178	96	208	192	120
Sara (Publikoa)		19		5	22	
Sara (St. Joseph)		46		21	40	
Sara (Olhain Ikastola)			46			43
Senpere (Publikoa)	35	81		67	75	
Senpere (Amotz publ.)	30			40		
Senpere (Zaldubi ikas.)			33			49
Senpere (St. Joseph)	26	32		75	55	
Urdazubi-Zugarramurdi			17			28
GUZTIRA	104	191	967	262	240	1.666

HEZIKETA ZIKLOAK

HEZIKETA ZIKLOAK				
	Prest.	HL KP	Erdi M.	Goi M.
BAZTAN	16	35	68	31
Lekaroz-Elizondo	16	35	68	31
BORTZIRIAK	0	0	24	27
Bera (Toki Ona)			24	27
XARETA	0	0	0	172
Senpere (Laborantza)				172
GUZTIRA	16	35	92	230
2013-2014 Guztira: 373	↑ % 7,77			
2012-2013 Guztira: 344				

HAUR HEZKUNTZA

2013-2014: 1.262	↑ % 4,44
2012-2013: 1.206	

LEHEN HEZKUNTZA

2013-2014: 2.168	↑ % 2,95
2013-2013: 2.104	

HIZKUNTZA EREDUAK

A eredia	Erdara hutsean
B eredia	Mistoa
D eredia	Euskara hutsean

Amaia GOIENETXE | Igantziko gaztea

«Denon gustuko zerbait antolatzen saiatzen gara, horregatik ez dut uste deus falta denik»

Lagunekin egotea, kanpora planak egitea, leku berriak ezagutzea, besta egitea... Zaletasun horietan ditu Amaia Goienetxe. Eta inguruko herrietako bestetan harat eta honat ibili ondotik, larunbatetik aitzinera herriko bestetan dantzaziko ditu oinak. Urteroko ohiturari segiz, bestetako lehenengo eguneko emanaldian eta San Migel eguneko saioan dantzatuko du. Erran digunez, ez du dantzarako lagunik faltako **«Igantziko dantza taldea hagitz egoera onean dago. Denera 90 lagun baino gehiago gara, musikariak eta San Migel egunean dantzatzen duten emakume eta ezpata-dantzariak kontutan hartuta»**. Titikitatik aritzen dela dantzan azaldu digu, **«Amadeo eta Itsaso izan ditut irakasle»** eta herriko gazteenek ere ohiturari eusten omen diote: **«batez ere talde gazteenetan dantzari pila bat daude»**.

Entseatu gabe, ezin dela plazara atera erran ohi da, baina aitortu digu, **«zaharrenei gauza batengatik edo berteagatik gehiago kostatzen zaigu elkartzeko eta normalean azkeneko momentuan presaka ibiltzen gara zerbait prestatzeko»**. Gaztetxoek, berriz, fin-fin ibiltzen omen dira **«lehenago hasten dira entsaiatzen eta besten ondotik deskantsu bat eginda, Eguberri ondotik ekiten diote berriz lanari»**.

Irailaren 21 eta 22an hasiko da besta giroa nabaritzen, baina 27an lehertuko da besta, altxareroa botatzearekin batera. Urtero herrian garrantzitsua den norbaiti ematen diote bestak iragartzen dituen txupinazoa botatzeko aukera eta aurtengoan Jesus Mari Sein 81 urteko saskigileak izanen du ardura.

San Migel Eguna igandea izanik, astelehenean, irailaren 30ean bukatuko dira bestak. Egitarauari erreparatuta ez da aspertzeko tarterik izanen: herri kirolak, herri bazkariak, pala eta pilota partidak, musika, trikitilariak, haurrentzako ekitaldiak... **«denon gustuko zerbait antolatzen saiatzen gara eta horregatik ez dut uste deus falta denik»**, gaineratu du. Berak, **«txupinazoko eguna eta herri bazkaria»** ditu egunik gustukoak, batez ere **«herrian sortzen den giroagatik»** azaldu digu. Ekitaldien artean, berriz, zaila omen da bakarra aukeratzeko. Hala ere, berezia iruditzen zaio **«herri kirolen saioa»**. Ikuskizuna ziurtatuta egoten omen da, **«beti dagoelako herriko gazteen arteko apusturen bat»**.

Amaiteko, besta giroa eta gogoia ez dela urtaro aldaketarekin desagertzen gogorarazi nahi die irakurleei, eta **«udazkena izanda ere, jendea animatu nahi dut sanmigeletara etortzeko, herrietako bestak ez direlako oraindik akautu!»**



UTZITAKO ARGAZKIA

Amaia Goienetxe.



yanci
harrobiak

ONGI PASA BESTAKI!

Unanue auzoa, 18 • 31790 • Igantzi
T. 948 63 72 88 • F. 948 63 75 89
icarrillo@hyanci.com • www.hyanci.com

Kulturkari
dantza-egintza

Laguntzen diseinua
Targeten diseinua
Trikiteak, boleak, karpak,
guzuzak, lekuzak...
Kartak, egutegiak
Irudi korporatiboak
Eskatu zurekintza konpromisoa gabe!
Tel. 948 635458 • kulturkari@tppi.net

TALOTXA
IGANTZI ERAIKUNTZAK

Ongi pasa bestak!

Piedadeko auzoa, 8 • 31790 Igantzi (Nafarroa)
608 20 21 26 • 618 90 18 10

OKILA
zurjindegia

- tarimak, leihoak, ateak, eskailerak...
- obretako lanak orokorrean

Lander Sein
Mikel Arburua

bai
segurua

On egin janak eta kalterik ez edanaki!

948 637 249 • Piedade gaina z/g
IGANTZI

Jose Canabal
Instalazio elektrikoak
orokorrean

**ARGIZTAPENA
MATXURAK • ALARMAS**

ONGI PASA BESTAK!!

T. 666 57 58 99 • 948 638 039
IGANTZI
josecanabal68@gmail.com

Canon Bidasoa

- Multifunzioen konpontze eta salmenta.
 - Ordenagailuen konpontze eta salmenta.
 - Zerbitzu teknikoak.
 - Kontsumibleak.
- Ongi pasa bestak!!

Santiago kalea 7, Irun info@cbc-bidasoa.es
943 631818

Carlos Txoperena

mendi garbiketak eta landaketak
ITXITURAK



Ongi pasa
Sarrasgetatik!!

Tel: 948 637 477
637 466 124
LESACA

JOSE AGERRE

pinturak



**PINTURA LANAK
OROKORREAN**

Kanpo eta barneko pintura
Barnizatze eta lakatzeak
Parket Flotatzaila jartzen dugu

610 221 528
BERRIZAUN

TALLERES BERRIZAUN

GASOLINERA LESAKA



IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Tel. 948 63 74 60
31770 Lesaka (Nafarroa)

Gas-olioa etkez etxe banatzen da
Kotxe berri eta zaharren salmenta
BESTA EDERRAK PASA !!

Irailak 21, larunbata

11:00 Frontoian MARMITAKO txapelketa eta dastaketa. Bakoitzak behar duen guztia ekarri behar du. **16:00** Plater tiroketa Ziobin. **20:00** Herriko dantzarien emanaldia **22:00** Bertso afaria.



Irailak 22, igandea

10:30 Karrika buelta txistulari eta trikitilari-ekin. **11:00** Haurren herri kirolak, Igantzi-Basaburua taldeen arteko konbinada. **12:00** X. gazta lehiaketa eta ardo dastaketa. Haurrentzako mosto dastaketa ere izanen da. **14:00** Jubilatuen bazkaria. **16:30** XXXIV. artzain zakur txapelketa. **18:30** Kankailu eta buruhaundiekin herrian barna karrika buelta. **19:00** Gazta eta opila dastaketa.



Irailak 27, ortzirala

16:00 Mus eta partxis lehiaketa, Biltoki Titik antolatuta. **18:00** Dantza-jazz ikuskizuna frontoian. **19:30** Elkartasun brindisa txosnan **20:00** Altxaferoa. **On-dotik** Kankailuak eta buruhaundiak txarangarekin herrian barna. **00:00** Gazteek antolatutako kontzertuak.

Irailak 28, larunbata

10:30 Karrika bueltan gaiteroak. **11:30** Karrika bueltan trikitilariak. **12:00** Aparkalekuan Gorriti eta bere animaliak. **12:30** Toka txapelketa frontoian. **18:00** Herri kirolak. **20:00** Elektropatxaranga eta buruhaundiak. **00:00** Txingudi DJ-a.

Irailak 29, igandea

SAN MIGEL EGUNA

10:30 Karrikan txistulariak eta ezpata-dantzariak. **11:30** Meza Nagusia.



Ondotik Bandera Agurra plazan eta ezpata-dantzarien saioa. **17:00** Trikipotea. **17:30** Pala partida (neskak) *Susana Muneta- Klair Bordagaray / Maider Mendizabal - Nagore Arozena (Munduko txapeldunak)*. **18:30** Pilota partida: *Chafee - Lasa III.a / Antxia - Beñat Mitxelena*. **Ondotik** Muxikoak frontoian. **21:30-00:30** Itsaso eta Irune trikitilariekin dantzaldia.

Irailak 30, astelehena

10:00 Karrika bueltan gaiteroak. **10:00** Puzgarriak eta Wii frontoian. Laser-tag oztopoekin. **12:00** Betizuak txarangak alaituta. **14:00** Haurren herri bazkaria zentroan. **14:00** Baratzondon Herri Bazkari, Egaña eta Sustrai Colina bertso-lariak eta txarangarekin. **15:00** Puzgarriak. **16:30** Euskaraokea frontoian. **18:30** Joxe Anjel akordeoilariarekin dantzaldia. **20:00** Suzko zezena. **21:00** Joxe Anjel akordeoilariarekin dantzaldia.



**Igantziko Udalak besta onak opa dizkizue
igantziar eta bisitari guztiei**

EUSKARA

EUSKARA → MATRIKULAZIO KANPAINA

Euskaraz alfabetatzeko deia egin diote Euskara Zerbitzuek jende helduari

Euskaltegietan matrikulatzeko epea zabalik dago

TTIPI-TTAPA

Heldu aunitzek ez zuten euskaraz ikasteko aukerarik izan, ondorioz, euskara etxean jaso zutenek euskaraz irakurri eta idazteko zailtasun aunitz dituzte. Eta etxean jaso ez zutenetako aunitzek ez dakite euskaraz. Gure eskualdean, helduen artean euskaraz ez dakitenen kopurua altua

dela ikusita, euskaltegi-an matrikulatzeko kanpaina abiatu dute Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Malerreka-ko Mankomunitateak, Baztango Udalak eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak.

Euskararen normalizazioa lortzeko helduen adin tartean eragitea «estrategikoa» dela uste dute Euskara Zerbitzuek, eta hori dela eta, helduak euskaltegian izena ematera animatu dituzte: «euskaraz ez dakitenek ikasteko aukera izanen dute, eta dakite-

nek etxean jaso duten euskara hobetzeko aukera izanen dute eta euskaraz idazten eta irakurtzen ikasiko dute».

Gure eskualdeetan lanean ari diren euskaltegiek urteetako esperientzia eta eskarmentua dutela oroitarazi dute: «euskara irakasteko metodo errazak erabiltzen dituzte eta aurrez aurreko klaseak eskaintzeaz gain, internet bitartez egiten diren ikastaroak ere eskaintzen dituzte». Gainera, euskaltegian izena emateak ekartzen duen gastua arintzeko Euska-

ra Zerbitzuek diru-laguntzak eskaintzen dituzte. Bortzirietan Euskara Mankomunitateak ikasle, langabe eta zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonentzako diru-laguntzak eskaintzen ditu (948 634125); Malerreka-ko Mankomunitateak ikasle eta langabeentzako diru-laguntza eskaintzen du (948 451746); Baztango Udalak euskara ikasleendako diru-laguntzak ematen ditu (948 580006) eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak ikasle guztiendako bekak eta

langabeendako diru-laguntza bereziak ematen ditu (948 504400, 948 510814 edo 948 305134).

EUSKALTEGIAK

- Lesaka: 948 637796
- Doneztebe: 948 451555
- Leitza: 948 610776
- Elizondo: 948 452471
- Larrainzar: 948 604704
- Lekunberri: 948 604704

Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldeko IKA euskaltegietan irailaren 30era arte matrikula daitenke, eta Baztango AEKn irailaren 26an akituko da matrikulatzeko epea.

EUSKALTEGIAN EUSKARAZ IRAKURTZEN ETA IDAZTEN IKASI DUTENEN BIZIPENAK



Ana LARRETXE | ARANTZA

«Euskaraz alfabetatuta, hurrekin izugarrizko diferentzia somatu dut»

«Euskaraz betidanik dakit, baina erdaraz ikasi nuen; ez nekeen euskaraz ongi idazten. Orduan alfabetatzera joan nintzen, eta gero hurrekin izugarrizko diferentzia somatu nuen. Hagitz ongi heldu da eurekin etxeko lanak egiteko, gauzak esplikatzeko, denetarako. Lan arloan ere hagitz baliagarria suertatu zait, bezeroekin egoki solasteko, eta gauzak gustuz egiteko. Gure eskaintza guztia euskaraz da».



Ana TOVAR | DONEZTEBE

«Seme-alabak euskaraz bizi dira eta euskara ez badakizu, gauza asko galtzen dituzu»

«Alaba bat izan nuen eta orduan euskara jakitea garrantzitsua bihurtu zen niretzat. Euskara ez banu ikasi, ez dakit nola ibiliko nintzatekeen eskolako lanetan laguntzeko, edo lagunekin zertaz ari den jakiteko, edo bere bitzita bera jarraitzeko. Gure seme-alabak euskaraz bizi dira eta euskara ez badakizu, gauza asko galtzen dituzu, eskolako kontuak, lagunekin duen harremana eta beste hainbat gauza»



Patxi SAENZ | LEITZA

«Ni ere euskaltegian aritua naiz, eta oso ongi etorri zitzaidan»

«Aurrera kirol elkarteko idazkari naizenez, askotan egokitzen zait idatziak euskaraz egitea: baimenak, txostenak, aktak... Elkarte barruko harreman guztiak euskaraz izaten dira, eta beraz, oso egokia iruditzen zait horrelako lanak aurrera eraman ahal izateko euskaraz alfabetatua egotea. Ni ere euskaltegian aritua naiz, eta oso ongi etorri zitzaidan».



Begoña ARANGO | IRAIZOTZ

«Euskaltegian ikasitakoari esker orain daukadan lana lortu nuen»

«Ultzamako udaletxean egiten dut lan, administrari laguntzaile gisa. Txikitatik ikasi nuen euskara, baina pixka bat bakarrik; eta gero, gehiago ikasi nahi nuen, eta euskaltegira joan nintzen. Euskaltegian oso ongi pasatu nuen, eta gainera, horri esker orain daukadan lana lortu nuen. Ultzamako udaletxean oso pozik nago, euskara erabiltzen dut, jendearekineuskaraz hitz egiten dut eta oso ongi doa nire bizitzan».

OSPAKIZUNAK → IBARDINEN

Kontrabandisten besta antolatu dute Ibardin irailaren 27 eta 28 rako

Patinete
jeitsieraren
txapelketa
eginen da

TTIPI-TTAPA

Bi egunez hainbat ekitaldi antolatu dituzte Ibardin, Kontrabandisten besta deitu duten ekimenaren harira. Irailaren 27ko arratsaldean eta biharamunean egun osoan hainbat aukera izanen dira. Egitarauaren barne, patinete jaitsieraren txapelketa eginen da.

IRAILAK 27, ORTZIRALA

- 15:30etik 18:30era patinete eskola (Ibardingo I. Longboard) 8 eta 14 urte bitarteko neska-mutikonetzat. Horrez gain, haurrentzako jolasak izanen dira Ibardingo abentura parkean.

IRAILAK 28, LARUNBATA

- 09:30ean kontrabandisten ibialdia. Oinezko martxa arautua, Manttalek antolatuta.
- 09:30ean patinete jeitsieraren txapelketa (I. Ibadin Mini Downhill Free Ride Longboard) egun guztian.

- 11:00etan Musika.
- 12:30ean haurrentzako jolasak eta animazioak.
- 12:30ean sagardo txotxa eta pintxoak.
- 12:30ean dantza jaialdia.
- 12:30ean kontrabandisten menua bentean.
- 15:30ean trikitilariak.
- 16:30ean musika animazioa.
- 17:30ean patinete jeitsieraren txapelketa finalak (Ibadin Mini Downhill Free Ride Longboard txapelketa finalak).
- 20:00etan sari bana-keta eta DJa.

Biomasa galdarak jartzeko kontratua

Eraikin publikoetan dauden gasoilezko 4 galdara eta gaseko baten ordezkari bi biomasa-koak jartzeko proiektua gauzatzeko obrak eta urtebeterako instalazioaren mantentze eta laguntza teknikoaren kontratua esleitu du udalak. Eolimer Renovables enpresak eginen du 304.829,37 eurotan (293.829,37 euro obra kontratuarengatik eta 11.000 euro mantentze kontratuarengatik).



UTZITAKO ARGAZKIAK

San Migel zubiko gudaren bigarren mendeurrena gogoratu zen

Abuztuko hondar eguna eta iraileko lehenbizikoa seinalatuak izan ziren. San Miguel zubiaren gudako bigarren mendeurrena gogoratzeko emanaldi hunkigarria eskaini zuten herriko kultur taldeek Herriko Etxeko Plazan eta biharamonean ekitaldi instituzionala egin zen zubian berean.



ARGAZKIA: JOXE MARI TELLETXEA

Esker ona eta txalo omenaldia Agerran

Agerra auzoko igandeko bazkari bukaeran, txalo artean eta musikaren konpasean, lau auzotar langile eskertu eta omendu zituzten aurret: Alberto Pereira, Jose Antonio Sainz, Angel Garcia de Dios eta Antonio Zubieta, hainbertze urtetan eginiko beren auzolana aintzat hartuz. Dena den, erreleboa prest dago dagoeneko, hauek uzten dituzte ardurak gazteek hartuko dituztelako. Udala eta komertzioaren laguntza ere izanen dute eta auzotarren parte hartzea ere beharrezkoa izanen da. Denon artean mantentzeko, denona dena.

Ba al zenekien

Alkoholiko Anonimoak Elkarteak 25 urte bete dituela Beran eta urteko hitzaldi publikoa irailaren 21ean, larunbat arratsaldeko 8etan eginen dutela Beralandetan?

Javier Iturria Leiza
- Igeltsero eta margo lanak -

Tel. 667 525 741 • LESAKA
bordatxipia@gmail.com



LESAKA

KIROLA → BETI GAZTEK ANTOLATUA

Euskadiko XCM txapelketa erabakiko da igandeko mendi bizikleta ibilaldian

60 kilometroko ibilbideaz gain, 42ko bertze bat ere izanen da aukeran

Aitor AROTZENA

Mendi bizikleta ibilaldia antolatu du aurten ere Beti Gazte elkarteak. Irailaren 22an, igandean izanen da eta txirrindulariek bi ibilbide izanen dituzte aukeran. Bata, 60 kilometrokoa eta 2.000 metroko desnibela duena, herriko muga guzietan barrena eta bertzea, ertaina, 40 kilometro luze eta 1.400 metroko desnibela duena, Burnaztegi, Eskolamendi eta Otsangon bidea laburtuz. Izen ematea 7:30-etik 9:00etara egingen da plazan. Federatuek 15 euro ordaindu beharko

dute eta federatuak ez daudenek 20 euro.

Ohikoa denez, ibilbidea ez da konpetitiboa izanen, baina aurten konpetizioa ere izanen da. Hain zuzen, ibilbide luzeenean, Euskadiko XCM (Maratoia) txapelketa erabakiko da eta Opienerako puntuagarrria ere izanen da. Txapelketan parte hartuko dutenak 09:30ean abiatuko dira eta bortz minutu beranduago konpetituko ez dutenak. Ibilbide laburragokoak, berriz, 10:00etan abiatuko dira plazatik.

San Fermin elkarteak Errioxara

Urriaren 3an Errioxara bidaia antolatu du San Fermin erretiratuen elkarteak. Goizeko 7:30ean abiatu eta bidean gosalduta ondorengo, Navarreteko Corral bo-



ARGAZKIA: JJ GUERRERO

Ibilaldi ez konpetitiboaz gain Euskadiko txapelketa ere erabakiko denez, normalean baino txirrindulari gehiago espero dituzte antolatzaileek igande honetan.

BERTSOLARITZA

Txapelketa nagusiaren simulakroa egingen da larunbatean Erregeneko baratzean

A. AROTZENA

Abiatzekotan da Euskal Herriko Bertsolari txapelketa nagusia eta horren simulakroa antolatu du irailaren 21ean Bortzirietako Bertso Eskolak. Hain zuzen, txapelketan parte hartuko duten lau bertsolari nafarrak

(hiru herrikoak) ariko dira Erregeneko baratzean, Arrano parean, larunbat arratsaldeko 7etatik aitzinera. Beraz, Xabier Silveira, Julio Soto, Erika Lagoma eta Eneko Fernandez ariko dira kantari eta Iban Garro izanen da gai-jartzaile.

dega eta Cerrillo ertze-bete enpresa bisitatu-kidutze. Laguardia bisitatu ondorengo, Labastidako Jatorrena jatetxean bazkaldu eta bazkalondoa Mañeruko La-cruz upategian bodega egingen dute. Bi autobus paratuko dira eta txartelak 30 eurotan salgai daude irailaren 27a bi-

tarte. Oraindik lekuri-k balezko, bazkideen on-dotik bazkide ez dire-nek ere izanen lukete apuntatzeko aukera 33 euro ordainduta.

Memoria tailerra

Urriaren 2tik azaroa-ren 27ra memoria taile-rra eskainiko du Ramo-ni Ordokik jubilatuen

egoitzan. Asteazkene-tan, 16:00etatik 17:30-era egingen da eta doan izanen da. Gehienez ere 15 lagunendako toki-a izanen da eta interesa-tuek irailaren 30a baino lehen eman behar dute izena, 661 345639 tele-fonora deituz (Ramoni) edo zuzenean jubila-tuen egoitzan.



DENDA BERRIA:

Plaza Zaharra, 25^{ean}

Denda zaharrean
uda eta neguko
oinetakoan

LIKIDAZIOA

Helbida: Arretxea, 20

OSPAKIZUNAK → LIZAIETAN

Usategietako tradizioaren besta irailaren 22an ospatuko da

Etxalar-Sara arteko hitzarmena berrestuko da eguerdian

Irune eta Itsaso

Usategietako tradizioaren besta irailaren 22an ospatuko da Lizaieta inguruan eta berriz ere, saratarrak eta etxalartarrak elkartzen dituen mugan bi herrietako ordezkariak zabalera espero da.

10:00etatik 13:00etara Artisauen erakusketak eta salmenta. Usazelearen paleta egite erakustaldi partehartzailea. Ondotik hamaiketako taloekin. Jarraian "Usok Sarean" erakusketa Sarako Ondarearen eskutik. 10:30ean "Botaluze" pilota partida. 11:15ean Lizaietako abata berriatik makila (karote) botatzeko txapelketa. 12:00etan

2011ko irailaren 4ko Sara eta Etxalar arteko hitzarmenaren sinadura berrestea eta ondotik soka tira desafioa. 12:30ean Sarako "Zazpiak Bat" dantzariaren emanaldia. 14:00etan Zikiro jatea Lizaietako zelaian, Sarako "Saranga" gaitariarekin eta kantu tradizionalekin animatua.

Apuntatzeko txartelak salgai daude Etxalarko Venta Lizaietan, Elutsan eta Herriko Ostatuan eta Sarako Herriko Etxean.

Landagain eskolan ikasturte hasiera

Irailaren 6an eman zioten hasiera ikasturte berriari Landagain eskolako ikasleek. Aurtengoa 3 urteko 14 haur berri hasi dira eta denera 81 ikasle eta 15 irakasle izanen dira. Denak ere gogotsu eta ilusioarekin agertu dira lehendabiziko egunean.



ARGAZKIAK: AMAIA ZELAIETA

Jauregietako bestak

Irailaren 1ean Jauregietako bestak ospatu ziren. 40 lagun pasa bildu ziren Mendialden bazkaltzeko eta bazkalondoan Miren eta Amaia trikitilariarekin giro ederrean bestari akabera eman zioten.

EHIZA

Iarmendiko ehiza postuen lehen enkantean ez zuen inork hasierako preziorik hobetu

TTIPI-TTAPA

Irailaren 7an, egin zen Iarmendiko inguruko ehiza postuen enkantea. Ohikoa baino ehiztari guttiago bildu zen eta krisiaren eragina somatu zen, ez baitzuen inork udalak proposatutako hasierako preziorik hobetu. 21 postuetatik 15 hasierako prezioan eman ziren, kubritu egin ziren inolako igoerarik gabe eta bertze seiak hutsik gelditu ziren, inork ez baitzuen hasierako preziorik ere ordaindu.

Emandako 15 postuengatik 27.095 euro jasoko ditu Etxalarko

Herriko Etxeak. Gogoratu behar da 2000. urtean 50.000 euro lortu zituela Udalak eta 2004an 81.875 euro. Lehenbiziko sei postuak Etxalarko Ehiztari elkartearekin izan ziren eta gainerakoak partikularrendako. Bi posturik garestienak 3.205 eurotan eman ziren.

Irailaren 17an izatekoa zen sexteorako aukera (prezioaren seiren bat igo beharko litzateke guttienez). Hobekuntzarik ez bada eta gainerako sei postuak ere hasierako prezioan emanen balira, 33.545 euro lortuko litzuke Udalak.



TAXIA

- Zerbitzu eskaintza zabala
- Zerbitzu iraunkorra: 24 ordu
- TAXI KONPARTITUA: ikasleentzat... (Irun-Donostia)

T. 948 635 096 - 674 64 48 12 • ETXALAR



MENDIKO
SAGARDOTEGI, IBARTEGI, IBETEGIA

IBARDIN (BERA)

SAGARDOTEGI MENUA
Txorizoa sagardoan | Bakailao-tortilla | Bakailao frijibua | Txuleta | Gazta eta inbaurrak

MANTTALE MENUA
Kroketak | Bakailao-tortilla | Txuleta | Gazta eta inbaurrak

EGUNEKO MENUA
Joan-etorriko garraioa negoziatzeko aukera
Gauzez irekia (guttieneko taldea 20 perts.)

ERRESERBAK
948 630 302
670 365 011

DESKONTUA
Bono hau erakutsita %10eko DESKONTUA (menu berezietan izan ezik)

ARANTZA

HEZKUNTZA → IKASTURTE BERRIA

Bigarren zikloko ikasleek ikasgela berria estreinatu dute herriko eskolan

Guzira 59 ikaslerekin hasi da ikasturtea, horietatik 6 neska hiru urteko gelan

Nerea ALTZURI

“Zimiko berri!”... arropa berria, zapata berriak... estreinatzen dituenari erran eta zimiko ttiki bat egiten diogu. Ba, herri eskolak 100 urte bete dituen urte honetan, ikasturte berriarekin batera ikasgela berria du. Ikasle kopurua gora doa eta aitzineko ale batean aipatzen genuen bezala, eskola ttiki gelditzen ari zenez, udan lan batzuk egin dira. Orain, bigarren zikloko ikasleek, gela argi eta polita estreinatu dute. Joan den irailaren 5ean eskolan hasi ziren eta denetara, 59 ikasle izanen dira ikasturte honetan.

Hiru urteko sei nexka eskolan hasi dira: Haizea Arenas Etxeberria, Oihane Ariztegi Ta-



ARGAZKIA: AITOR ELEXPURU

Herriko neska-mutikoez zintzo hasi dute ikasturte berria.

berna, Jenifer Estefany Burguete Veintimilla, Alaitz Ibarra Bereau, Ainere Iguzkiagire Irigoi-en eta Karmele Oiartzabal Iturria.

Berako Toki Ona Institutura berriz, Andoni Taberna Larretxea joan da.

Gainerakoan, mailaz maila, datuak ematen

DATUA

6

IKASLE BERRI
hasi dira hiru urtekoen
gelan. Bitxikeri gisara,
seiak neskak dira.

jarraituz: Lau urtekoak 6 ikasle dira; bortz urtekoak, 8 haur daude.

Lehen hezkuntzan, lehenengo mailan ikasle bakarra dago; bigarren mailan 6 ikasle daude; hirugarrenean, bortz gaztetxo; laugarren mailan zortzi ikasleko taldea; eta bortzgarren eta seigarren mailetan

bortzina ikasle daude. Bigarren hezkuntzan berriz, lehenengo mailan lau ikasle daude eta bigarren mailan, bortz neska mutiko daude.

BIGARREN HEZKUNTZAN ATAL ELEBIDUNA

Eskolatik datorren bertzte berrikuntza bat atzerriko hizkuntzen irakaskuntzari dagokiona da. Izan ere, bigarren hezkuntzan frantzeseko eta ingelerako atal elebidunak ezarri dira. Horrela, Berako Tokion Institutura joatean ikasleek hizkuntz eredu horietan jarraitzeko modua izanen dute.

PELLE-TTIKIN 9 NEXKA MUTIKO

Joan den irailaren 9an, Pelle Ttiki haur eskolan ikasturte berria abiatu zen. Momentuz, sei ikasle izanen badi-ra ere, geroxeago, bertzte hiru nexka mutiko batuko dira taldera. Beraz, denetara, 9 ikasle izanen dira aurtien Kolobike Gorostiza hezitzailearekin.

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
KATEA-BIKE

IMANOL ITURRIA
ZURGINA
Enpresa eta partikular
T. 661 577 137
E-posta: imanuria@hotmail.com
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

IRU BIDE
Erretxegia - Asador
Baserri/txiki, 3^{er} Leisak
Tel: 948 637 127

Lentzena
Bainu-jantziak
Mertzeria
Jantzi txikiak
Perlon blusak
kattagorria
Behoko plaza 10 30770 Lesaka
T. 948 627 514

A
aterpe
albergas jeltetuen enitatea
T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

BORTZIRIAK

BERA → IRAILAREN 5ETIK 8RA KONTZERTUAK, IBILALDIAK ETA BERTZE HAINBAT EKINTZA EGIN ZIREN

Bertze musikak aditzeko aukera eman du Ertz jaialdiak

Guda doinuak aditu ziren, atabal eta polborarekin

TTIPI-TTAPA

Ertz Bertze Musiken Jaialdiaren hamalagarren edizioa burutu da irail hasieran Beran eta Donostian.

Berako ekitaldiei dagokienez, Irailaren 5ean, *Hegi, egia, egiak* emanaldia entzungai izan zen Kultur Etxean, Beralandetan eta Altxateko elizan.

Irailaren 6an, *Concrete Landscapes* erakusketa ireki zen Beralandetan eta *Parental Advisory Lyrics*, Jose Mari Zabalaren filmeak eskaini ziren Kultur Etxean.

Irailaren 7ko kontzer-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Altxateko elizako emanaldia, *Gerra kulturen paisaioa* eta atabalari eta polbora soinuak.

tuen ondotik, biharamonean *Gerra Kulturen Paisaioak* ibilaldi kulturala egin zen, Fernando Mikelarena eta Jakoba Errekondo gidari zirela. eguerdiko su-etenean bazkaria Gure Txo-

koa elkartearen eta arratsaldean atabalarien martxa eta azken guda (dantzarik ez) egin zen, danbor eta polbora soinuaren artean.

Beran ere arrasto la-tza utzi zuten gerra na-

poleonikoen bigarren mendeurrena aitzakia hartuta, Ertz jaialdi honetan, gerraren soinua hartu dute aintzat, «danborretatik hasi eta gerra modernoaren uestezko isiltasunetaraino».

IGANTZI

Urrian abiatuko da Aerobic ikastaroa

TTIPI-TTAPA

Aurten ere aerobic ikastaroa eskainiko da herrian, urriaren 3tik aitzinera. Bi saio izanen dira astean, bakoitza ordu batekoa, bata asteleeneretan, 20:00etan, eta bertzea asteazkenetan, 19:00etan. Bi saioetara joateko aukera izanen da, edo nahi izanez gero, batera bakarrik (erdia ordu-induta). Izena emateko 661 767398ra deitu behar da lehenbait lehen.

Beñat Txoperena

Etorkizuneko Tourrean parte hartu ondotik, Munduko txapelketarako aurreselekzioan sartu zen herriko txirrindularia. Zorritzarenez, ez da sartu 23 urtez behetiko kategorian lehiatuko diren bortzen artean.

Karsuk®
Muebles de cocina
Meubles de cuisine
Sukaldeko altzariak

Karlos Pombar Sainz

C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 884 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

XATURETXEA
JATETXEA
T: 948 637 260 · LESAKA

benta berri
bardinga goina · BERA · Nafarroa · benta-berri@hotmail.com

Benta Berrin gure gastronomia, menu goxoak eta arrain freskoan espezializatutako karta dastatu dezakezue

ERRESERBAK
948 630 708

DESKONTUA
Bono hau erakutsita %10eko DESKONTUA (menu berezietan izan ezik)

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel: 948 63 10 27 · Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com

SUNBILLA

OMENALDIA → IRAILAREN 5EAN

Julio Odriozola Ohorezko alkate izendatu du Herriko Etxeak

Ehun urte bete ditu Kuban sortu, Gipuzkoan hazi eta herrira ezkondu gizeasemeak

Maidier PETRIRENA

Udalak omenaldi xume bat egin zion irailaren 5ean Juan Julio Odriozola Etxanizi, Sun-

billako Ohorezko alkate izendatuz bere 100. urteurrenarengatik.

1913ko ekainaren 16an Cubako Aguacate herrian (gaur egungo La Habana) jaio zen Odriozola. Jatorriz euskalduna, 6 urterekin Matxinbentara (Gipuzkoa) itzuli zen bere gurasoen batera. Isabel Manterola sunbildarrarekin ezkondu zen eta ordutik sunbildartzat hartu zuen bere burua, nahiz



ARGAZKIA: PAKO ERRANDONEA

Juan Julio Odriozola, familiak inguratua.

eta urte aunitzez Donostian bizitu. Berarekin 2 seme-alaba izan zituen, Tomas (duela urte batzuk zendua) eta Isabel. Azkeneko urte hauetan, Isabel bere alabarekin bizi da Bartzelonan haren 4 seme-alaba eta 5 bilobez gozatuz.

Hagitx ekitaldi hun-kigarria izan zen fami-liakoak eta lagunak bertan izan zirelako. Nor-bait aipatzekotan, bere emaztearen ahizpa, 90

urte dituen Pascuala Manterola. Aipatu be-harra dago omenaldi hau lehenago ere egi-teko asmoa zuela Uda-lak eta ez egitearen arra-zoia omenduaren osa-

una izan dela. Oraingo-an, berriz, posible izan da Julio eta familia ekar-tzea eta ongi merezita-ko ekitaldia bu-rutzea. Zorior-nak Julio!



Ba al zenekien

SITE, Sunbilla Indartuz Turismo Elkarte, due-la gutti sortutako elkarte del. Elkar-te honen helburu nagusia herria dinamizatzea da, zer-bitzuak mantenduz eta bertakoek zein turis-tek gure herriaz disfrutatzea. Informazio ge-hiago: <http://sunbillasite.wikispaces.com>



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Zuzenketa

Aurreko alean Basilio Sarobe apezka eta Agustin Arretxea zapataria herriko bestetan omendu zituztela jarri genuen. Zuzenketa zein da? Zapataria ez zutela zapataria zelako omendu, udalerako de-positario lanak egin zituelako baizik.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Dantzari eta erraldoien ikuskizuna irailaren 28an

Bosgarren urtez jarraian Sunbillako dantzari eta erraldoiek beraien ikuskizun pa-regabea eskainiko digute irailaren 28an ilunabarrean, herriko frontoian. Jendea animatzea espero dugu oso polita izango baita emanaldia. Erran beharra da he-rrian dantzatzeaz gain bertze herrietan barna ere ibili direla, hain zuzen ere, Zu-garramurdi, Urdazubi eta azkena Oizko bestetan, argazkian ageri den bezala.

JAVI PETRIRENA

⚡ ELEKTROIZATEA 💧 ITURGINTZA ❄️ KLIMATIZAZIOA 🌱 BIOKASA PELLET 🔥 BEROTZA

Ramen Latasa 5, Sunbilla (Na) | T. 629354947 | javi_petri@hotmail.com

elika

Dietetika... elikadura

Isabel Andueza Larriz
Itzea, 6 beheko - BERA - T. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

- Aholkularitza dietetiko nutrizionala pertsonalizatua
- Gorputz konposizioaren analisi: ura, muskulu, gantz...
- Dietoterapia: hipertentsioa, hiperkolesterolemia, diabetes, arazo digestiboak...
- Kolesterolia eta glukosa azterketak

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/vtapi.ttapa

GIZARTEA → IRAILAREN 21EAN

Euskal Artzain Amerikanoen Eguna ospatuko da Donibane Garazin

TTIPI-TTAPA

Euskal Artzain Amerikanoen Eguna ospatuko da irailaren 21ean Donibane Garazin eta ziur garai bateko kontuekin batera, berriki egin duten bidaia bateko kontuak ekarriko dituztela gogora.

Irail hasieran Ameriketara barna ibiliak baitira 81 euskal artzain eta bere senideak, joan den mendean egindako bidaiaren arrastoan. Bertan ongi etorri goxoa izan zuten eta harat eta honat ere ibili ziren: Chinoko pikniketan parte hartu zuten, Bakersfielden izan ziren eta Fresnoan Antonio Camposen rantxoan barbakoa izan zuten. Campos-i esker, Renoko Unibertsitateak gure artzainen emigrazioari buruzko tesi bat egiteko aukera eman dio lau urtez Nafarroako historia lizentziatu bati. Azkenik, San Francisco aldera jo zuten 81 bidaiariek, bertako Euskal Etxean artzainekin elkartu ez ezik, turismoa egiteko aukera izan zuten. San Franciscoko Euskal Etxean 200 bat lagun bildu ziren eta bidaiaren bukaera bezala, artzain guziek elkarrekin argazkia atera zuten, Bakersfielden oparitutako kamiseta eta bidaiaren eraman duten zaparekin. Painulu honetan, honako lelo hau irakur daiteke: "Euskal artzainak in California, berriro hemen, Hello!". Artzainek adierazi dutenez, bidai zoragarria bizitu dute.



Ameriketara ibili dira artzainak irail hasieran. Argazkia San Franciscotik aterata da.

Auto Asegurua

"Zure autoak aseguru on bat merezi duelako..."

Javier Aramendiak, Caja Rural-Seguros RGA taldeko nafar txirrindulariak, errepidean erakusten du ez dela gutxierekin konformatzen. Ez bizidetan, ezta bere autoan ere.

Auto Asegurua Rural Kutxan duelako, hots, Rural Kutxa Taldeko Seguros RGA Aseguruen estaldura zabalarekin eta baldintza ekonomiko onenekin.

...bat egin ezazu talde seguru batekin"

Galdetu gure edozein bulegotan. Aseguru on baten atzetan talde on bat baitago beti.

Síguenos. Funciona.

Talde seguru bat

DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 20 ETA 21EAN

Ekitaldiz gainezka datoz aurten ere asteburu honetako besta ttikiak

TTIPI-TTAPA

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, aurten ere besta ttikiak antolatu ditu Gazte Burrunbak. Doneztebarrak elkarterko bazkideek ere karrikara aterako dituzte produktuak ortziralean.

ORTZIRALA, IRAILAK 20

- 19:00etan luntxa txosnan.
- 20:00etan txupinazoa eta ondoren gaua animatzeko Agerralde.

LARUNBATA, IRAILAK 21

- 11:30ean Mus txapelketa elizako aterpean.
- 14:00etan Gazte bazkaria Santamarian.
- 17:00etan koadrila arteko sokatira Santaluzi plazan.
- 19:00etan trikipoteoa herrian barna.
- 22:00etatik aitzin gau-pasa Zopilotes Txirrius eta DJ Luismirekin.

Euskaraz bizi nahi dut lasterketa irailaren 29an

Kontseiluak antolatutako Euskaraz bizi nahi dut lasterketa Do-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Herriko laxoa txapelketa jokatu da lehen aldiz

Arrakasta handia izan du Laxoa Elkarteak lehen aldiz antolatu duen Doneztebeko Laxoa txapelketak. Denera zortzi talde aritu ziren Bear-Zanan abuztua eta iraila lotu zituen asteburuan. Azkenean, beterranoen talde historikoa nagusitu zen, Javier Mariezkurrena, Felipe Ganboa, Pello Iribarren, Txutxin Zabala, Santi San Miguel eta Jose Mari Anzizarrekin. Arrakasta ikusita, urtero errepikatzeko asmoa dute antolatzaileek.

nezteben irailaren 29an (igandean) ospatuko da, euskaraz bizitzeko sentsibilizazioa handitzeko helburua izanda. Lasterketa hau burutu ahal izateko udan batzorde bat osatu da hainbat eragile bertan izanda: Erreka K.E., Doneztebe eta Eskola txikietako irakasle eta guraso elkarteak, Doneztebeko udala, Euskara Zerbitzua... Lasterketa hainbat mailatan banatuko da: txikiak (0-6 urte eta 200

m.), infantilak (7-11 urte eta 500 m.), jubenialak (12-17 urte eta 1.000 m.) eta helduak (18 urtetik gorakoak eta 5.000 m.) Txikiak goizeko 11etan hasiko dira eta helduek, berriz, eguerdiko 12etan egingen dute markatuko ibilbidea.

Ikasturte berria IKA euskaltegian

Urtero egiten duen bezala, aurtengo irailean ere Doneztebeko IKA

Euskaltegiak 2013-14 ikasturterako matrikulazio epea zabaldu du. Aurtengo kanpainak "erraztu egiten dizugu metodikarekin" leloa du. Malerrekako euskaltegian maila guztiak eta EGA eskaintzen dira era presentzialean eta online edo ordenagailuaren bidez. Matrikulazio epea irailaren 30a arte luzatuko da eta klaseak urriaren 7an hasiko dira. Aipatu behar da bertako Mankomunita-

teak ikastaro hauetan parte hartzen duten langabetuei diru-laguntzak ematen dizkietela.

Malerreka kantuz

Udako atsedenaldiran ondotik, berriz ere Malerreka kantuz ekitaldiari ekin dio Euskara Zerbitzuak. Hurrengo Donezteben egingen da urriaren 5ean. 12:00etan abiatuko da eliz atarian eta karrikaz karrika ibiliko dira kantariak.

4 MARITX

Legia, 23-BERA T. (0034) 636 617 450

Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

Gure Haragia
Nuestra Carne

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

ELGORRIAGA

HERKUNTZA → IRAILAREKIN BATERA

Ikasturte berriari ekin diote herriko neska-mutikoeak

Pilates ikastaroa eskainiko du aurten ere Nuriak

Mattin LARRALDE

Irailaren lehen egunarekin batera ikasturte berriari hasiera ematen zaio. Haur, guraso eta irakasleak elkartu dira urtero bezalaxe, batzuk ilusioarekin, besteak sopresarekin eta beste batzuk oporrak labur gelditu zaizkiela erranez. Zorte on denei eta bakoitzak nahi duen edo ahal duen bezala ateri aurrera ikasturtea!

Pilates ikastaroa

Irailaren 30ean, astelehenarekin hasiko da pilates ikastaroa. Le-



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Pilates ikastaroa emanen da irailaren 30etik aitzinera.

hengo urtean bezala Elgorriagan eta Donezteben emango ditu klaseak Nuriak. Animatu neguan kirola lagun artean egitera.

Egur loteak

Bertzalde egur loteak eskaini dira aurten ere eta udaletxean hartu dituzte eskaerak.

Akitzeko aipatu, giltza batzuk aurkitu dituztela plazan, norbaitek falta baditu jarri dadi. Berriemaile honekin harremanetan.

GAZTELU

Ur hornidura lanetarako 87.760 euroko laguntza eman du Gobernuak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernu-ko Landa Garapen, Ingurugiro eta Toki Administrazio Departamentuak 9 milioi euro terdiko inbertsioak onartu ditu azken hila beteetan, Nafarroako 28 udalerritan azpiegituren hobetze lanak egiteko. Lan horietarako 5.439.524 euroko dirulaguntzak emanen ditu, 2009-2012 Tokiko Inbertsio Planaren barnean.

Eskualdean herri bakarrari ailegatuko zaio dirulaguntza. Hain zuzen, Donamaria-Gazteluko udalak jasoko du, Gazteluko ur-hornidura lanak egiteko. 117.989 euroko inbertsioa egin behar da eta Nafarroako Gobernuak 87.760 euroko dirulaguntza emanen du.

MIKROPIGMENTAZIOA:
Begi, bekain eta espainetako edertasuna nabarmentzeko makillaje iraunkorra.

ANTES:

AHORA:

ZERBITZU BERRIAK:

TATUAJEAK:

OYÁ
EDERTASUN ZENTROA
Legia, 45 - behea • BERA
T. 948 631 005 • M. 698 499 192 • 698 499 204
www.facebook.com/estudio.oja

► BEKAIN ETA BETILEEN TRATAMENDU IRAUNKORRA
► BETILEEN LUZAPENA (ILEZ-ILE)
► ESMALTATU IRAUNKORRA
► MANIKURA ETA PEDIKURA
► AZAZKAL LANDUAK
► AURPEGI DEPILAZIOA

ORDUTEGIA:
Asteartetik ostiralera:
09:00-13:00 • 16:00-20:00
Larunbatetan: 10:00-13:00

URROZ

BESTAK → SANMIGELAK IRAILAREN 27TIK 30ERA

Kastro, Erasun, Irazu eta Kañamares San Migel Eguneko aizkora apustuan

Herri bazkarian
Julio Soto eta
Iker Zubeldia
bertsolariak
ariko dira

- 19:00etan pilota partidak.
- 21:00etan koadrila eta peñen afaria.
- Arratsaldean eta gauaz dantzaldia GABEZIN taldearekin.

TTIPI-TTAPA

Irail hondarra hurbildu ahala, besten egutegian sanmigelek hartuko dute lekukoa, baita Urroren ere. Irailaren 27tik 30era lau egunez ekitaldisaila prestatu dute haur, gazte nahiz helduek ongi pasatzeko.

**ORTZIRALA, IRAILAK 27
BEZPERA**

- 17:00etatik 20:00etara puzgarriak.
- 20:00etan altxaferoak eta ezkil jotzea.
- 21:30ean zopak Herriko Ostatuan.
- 00:30ean dantzaldia DJ ENDARArekin.

LARUNBATA, IRAILAK 28

- 11:30ean Mus Txapelketaren hasiera.
- 11:30etik 13:00etara puzgarriak.
- 17:00etan Gorriti eta bere animalien saioa.

**IGANDEA, IRAILAK 29
SAN MIGEL EGUNA**

- 11:30ean Meza Nagusia.
- Ondotik luntxa Herriko Ostatuan.
- 13:00etan aizkora apustua. Kastro eta Erasun, Irazu eta Kañamaresen aurka.
- 17:30ean trikitalariak.
- 20:00etan tortilla eta postre lehiaketa.
- Arratsaldean eta gauaz dantzaldia AGERRALDE soinulariarekin.

ASTELEHENA, IRAILAK 30

- 11:00etan Mus Txapelketaren bukaera.
- 11:15ean haurrendako jokoak.
- 13:00etan herri kirolak.
- 14:30ean herri bazkaria Julio Soto eta Iker Zubeldia bertsolariarekin. Gai-jartzaileak Kopto eta Lelys.



ARGAZKIAK: JOSEBA URROTZ

Haurrentzako jokoak izanen dira bestetako astelehenean eta egun bereko herri bazkarian, Julio Sotorekin batera Iker Zubeldia ariko da aurtengoa.

- Arratsaldean eta gauaz dantzaldia JOXE AN-

- JEL soinulariarekin.
- 22:00 aldera afaria plaza-

zan, zingarra eta ziztorrarekin.



Berezu etxea • LESAHA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

Urrozko Udalak



besta zoriontsuak
opa dizkizue
urroztar eta bisitari
guztiei

Egin zaitez
ttipi-ttapa
harpidedun



(0034) 948 63 54 58

NARBARTE

GIZARTEA → ABUZTUAREN 31N

Mendiko pistak garbitzeko auzolana egin da

Urkide, Meate, Otaltzu eta Enaburura doazen bideak konpondu dituzte



Martin BERTIZ

Pasa den abuztuaren 31n auzolana egin zen mendiko pistak garbitzeko. Urkide, Meate, Otaltzu eta Enaburura doazen bideak garbitu eta konpondu ziren. Berrogei herritar bildu ziren egun guztia iraun zuen lan jardunaldian eta ostatuan egin zen afari batekin akabilla eman zitzaion aurten-go auzolanari.

Nitro Telebista

Bertizaranako udalak atera du ohar bat esanez Nitro telebista ikusteko 23. kanala sin-tonizatu beharko dela.

Ikasturte hasiera

Irailaren 7an eman zitzaion hasiera ikastur-



ARGAZKIAK: MARTIN BERTIZ

Goiko argazkietan ageri denez, itxura ederra hartu dute pistek auzolanean moldatu ondotik. Behean Narbarteko eskola ageri da. Ikasturte honetan 22 ikasle hartuko ditu, horietatik bortz lehen aldiz eskolaratuko direnak.

te berriari eskolan. Aurten bost gaztetxok le-

hen aldiz eskolarako bi-dea hartu dute. Orain

hogeita bi ikasle dira de-netara.

BERTIZ

Bidasoko Bide Berdeko VII.BTT Martxa igandean

TTIPI-TTAPA

Behobia eta Bertiz lotuko ditu irailaren 29an egingen den BTT martxak. Bertizko Turismo Partzuergoak antolatu du seigarrenez, eta aitzineko urteetan bezalaxe bi ibilbide jarri dituzte aukeran, helduendako bata eta haurrendako bestea. Ibilbide nagusiak 42 kilometroko luzera du eta Behobia eta Bertizko Naturgunea lotzen ditu. Haurrendako prestatutakoak berriz, 15 kilometroko luzera du, Behobiatik abiatu beharrean, Sunbillatik hasiko baitute ibilbidea. Izen emateak egunean berean egin beharko dira. Ibilbidearen hasierako puntuetara joateko garraioa ere jarriko dute Bertizetik, helduak Behobiara eramateko 10:15ean eta haurrak Sunbillara 11:30ean. Bi taldeak 13:30 inguruan iritsiko dira Bertizera. Ondotik opari banaketa eta jaki tipikoen das-taketa egingen dituzte.

F. LANCHAS
Akutoladorea eta berrizatzaila
Parket eta parket flotatzaila
jaritzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

sarobe
gozategia okindegia
prezio errealak 25 beko
34780 berri-berriak
t.948 63 06 99
www.sarobe.net

KATEA-BIKE
ttipi txartela
%5eko
DESKONTUA
konponketetan

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barutxoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

ITUREN

OSPAKIZUNAK → BASERRIETAN ETA HERRIAN

Joaldunen Eguna ospatuko da irailaren 21ean

Bazkal aurretik Oihan Larretxea eta Ander Erasun aizkoran eta Igor Elortza eta Aitzol Barandiaran bertsotan ariko dira

Arkaitz MINDEGIA

Joaldunen Eguna antolatu du aurten ere Ibintza taldeak. Irailaren 21ean, larunbatean izanen da.

Goizean zehar joaldunen eta trikitilarien ibilbidea egingen da baserriz-baserri eta herri-

an. 13:30ean aizkora apostua jokatuko da Oihan Larretxea eta Ander Erasunen artean. Ondotik Igor Elortza eta Aitzol Barandiaran bertsolariak ariko dira kantari. 15:00etan herri bazkaria egingen da eta horretarako txartelak Herriko Ostatuan eta Ariztegi harategian dauka salgai. Ondoren, dantzaldia izanen da Frantziskoren eskutik eta animazioak luze joako du.

Jabier Sein berriz ere lanean

Udako atsedenaldia- ren ondotik, irailaren 14an berriz ere Euskadiko Openari ekin dio



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Larunbatean berriz ere protagonista izanen dira joaldunak.

Javier Sein txirrindulariak. Txapelketa honetako azken karrera zen eta hurrengo alean ematen dugu emaitzaren berri. Irailaren 29an, berriz, Caja Rural Kopako azkeneko lasterketan parte hartuko du aurten Nafarroako eta Euskadiko txapeldun izan den Seguros Bilbao taldeko txirrindulariak.



HEZKUNTZA → IKASTURTE BERRIA

Ikasleak hasiak dira Ituren eta Donezteberako joan-etorrietan

Hiru urteko bi ikasle berriak Doneztebeko eskolan hasi dira ikasten

Fermin ETXEKOLONEA

Ikasturte berriari ekin diote herriko neska-mutikoei. Hamabi urte arteko gehienak Iturenera joaten dira, baina aurtengoan ez da ikasle berririk hasi Iturengo eskolan. Hiru urteko bi ikasle daude, Eneko Iribarren eta Martxel Fuentes, baina hauen gurasoek Doneztebeko eskolan hastea erabaki dute.

Euskararen Eguna urriaren 12an

Euskararen Egunerako data jarri dute gazteek. Urriaren 12an egingen da eta programa zehazteko mugitzen hasiak dira, bilerak egingez. Oraindik denbora falta da, baina antolatketan parte hartu eta lagundu nahi duten guziek ateak zabalik ditzutela jakinarazi dute.

Heriotza

Dendarineko Pedro Mutuberria hil zen abuztuaren 29an. Dolu-minak Juanita Ibarra alargunari eta seme-alabei.



ARGAZKIA: TXAS

Herriko ikasleek Ituren edo Doneztebera mugitu behar dute ikastera.

Ekhi eta Ainhitze bixkiak jaio dira

Irailaren 7an bixkiak jaio dira herrian, Ekhi eta Ainhitze Mariezkurrena Asensio. Zorionak Oinatz eta Arantxa gurasoei, baita Joxe eta Axun aitatxi-amatxiei. Ezekiel ere birraitatxi egin dute eta harentzat ere zorionak.

Gaztegunea urritik aurrera

Berriz ere urriaren hasieratik Txitxilo Gaztegunea martxan jartzeko asmoa dago. Bertako arduradun izateko deialdia egin zen eta dagoeneko akitu da horretarako epea. Hurrengo alean jakinaraziko dugu zein izanen den.

Maistraren Etxea alokairuan

Maistraren etxea moldatu zen auzolanen. Etxebizitza bezala alokairuan ateratzeko asmoa du Udalak. Dagoeneko moldaketa lanak akituak dira eta urte bukaerarako errentan jartzeko asmoa du Herriko Etxeak.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

ESKAINITZA:
lumazko nordikoak

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑA · 948 230 634

EZKURRA

TURISMOA → 30 LAGUNENTZAKO TOKIA DAUKA

Basojaun aterpe berria zabaldute abuztuan

Tito Gorostiagak
zuzenduko du

Fernando ETXEBERRIA

Abuztuan ireki zitu-
en ateak Tito Gorosti-
agak zuzenduko duen
Ezurrako aterpe berri-
ak. Bi logela handi ditu,
30 bat literekin eta era-
bilera anitzeko aretoa.
Gainera, beheko solai-
ruan kokatua dago,
frontoirako sarbideare-
kin eta horregatik ero-
so suertatzen da esko-
la-umeentzat nahiz ju-
bilatuentzat. Modu ho-
netan, errepidera ater-
ratzea ere saihesten da.

Ez da ohiko aterpea,
izan ere arduradunaren

asmoa kultur jarduerak,
ibilbideak eta inguruan
dauden toki interesga-
rietara bisitak egitea
baita. Horretarako, Ba-
sojaun izenarekin web-
gunea ere sortu du (<http://basojaun.com>)
eta bertan mendiarekin
eta aisialdiarekin lotu-
tako hainbat jardura
proposatzeaz gain,
gaztanbera, gazta edo
taloak nola egiten diren
ere azaltzen du. Gaztai-
nak, basakarak edo
onddoak biltzeko ate-
raldiak antolatzeak au-
kera ere ematen du.

Ehiza sasoi

Ehiza garaia hurbil
dago eta Txantxango-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Aterpe berriaren inaugurazioa eta literetako batzuk.

ri ehiztari elkartearen
batzarrean erabaki ze-
nez, azkeneko bi aste-

buruetan bideak eta ehi-
za postuak egokitzeko
eta moldatzeko lanak

egin dira. Orain, usoak
pasatzea bakarrik falta
da.

KIROLA → ABUZTUKO ATERALDIA

Leitzatik Saldiasera joan dira 40 mendizale

Hamalauk
bakarrik egin
zuten ibilbide
osoa oinez

Fernando ETXEBERRIA

Leitza, Ezkurra eta
Eratsungo 40 mendiza-
lek anaitasun besta egin

zuten abuztuan, Leitza
eta Saldias bitarteko
mendi ateraldia antola-
tuz, gero elkarrekin
bazkaltzeko. Egia da 40
horietatik 14 bakarrik
osatu zutela ibilbide
osoa oinez, gainerako-
ak Ezurrako errepide-
tik joan ziren, azkeneko
bi kilometroko malda



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Mendi ibilaldiaren ondoren gustura bazkaldu zuten mendizaleek.

gogorra autoan igotze-
ko. Ederki bazkaldu zu-

ten eta bazkalondo lu-
zearen ondoren, bako-

tza bere herrira buelta-
tu zen.

GIZARTEA → IKASTURTE BERRIA

Ikastaroetan izen emateko epea irailaren 27ra arte zabalik izanen da

Yoga, gimnasia eta eskulanak herrian eta igeriketa Hernanin

TTIPI-TTAPA

Irailarekin batera ikasturte berria hasi da Xalto eskolan ari diren neska-mutikoentzat. Aurten 76 ikasle hasi dira, 21 Haur Hezkuntzan, 41 Lehen Hezkuntzan, eta 14 DBHn.

Baina helduek ere izanen dute udazkene-

an hasiko diren ikastaro ezberdinetan parte hartzeko aukera.

Hau idazterakoan, udalak yoga, eskulanak eta gimnasia ikastarotarako irakasleak lortuak zituen, baina behar bada besteren bat ere izanen da. Irailaren 16tik 27ra izanen da ikastaro hauetan izena emateko epea, Herriko Etxera joz.

HELDUENDAKO IGERIKETA HERNANIN

Beste aldetik, igeri-an ikasi edo hobetzeko



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Umore Ona abesbatza hasi da entsaiatzen

Umore-Ona abesbatzaren entsaioak joan den ostiralean, irailaren 13an hasi ziren. Ostiralero, arratsaldeko 7:30ean egingen dituzte. Kantatzea gustukoa baduzu, azaldu!

aukera izanen dute helduek Hernaniko igerilekuan. Astearte eta ostegunetan izanen dira saioak, arratsaldeko 4etatik 5etara.

Informazio gehiago eskuratu edota izena

Baiatzinikin...

Osasunako futbol taldeko entrenatzaile posturako izendatu berria den Javi Gracia sortzez goizuetarra dela.

eman nahi dutenek Mairiose Nabateri esan be-

harko diote, irailaren 25a baino lehenago.



ARANO

HEZKUNTZA → EGUNERO GOIZUETARA AUTOBUSEZ

Herriko 15 ikaslek hasi dute ikasturtea Goizuetako eskolan

Duela 42 urte itxi zituzten herriko eta Suro auzoko eskolak

Kontxi KLABER

1970. urtean ateak itxi zituzten Arano herriko eta Suro auzoko eskolek. Berrogeita bi urte pasa dira orduz geroztik herriko umeak Goizuetako eskolara

joaten direla. Hasieran autobus haundiarekin etortzen ziren haur eta gaztetxoak jasotzera eta dena beteta bueltatzen zen Goizuetako plaza- ra, baina pixkanaka kopurua jeisten joan zen urteetan zehar, ia bukatzeraino iritsiz.

Duela hamaika urte, berriz ere gorako joera hartzen hasi zen poliki-poliki eta gaur berriz esan dezakegu hogeita bi eserlekuko auto-



ARGAZKIA: JOXAN RUIZ MINER

Aranoko umeak ikasturte berriaren lehen egunean Goizuetara eramaten dituen autobusera igotzen. Gurasoak ere kontentu azaltzen dira.

busaren hamabost bertetzen direla.

Aurten, Maddi eta

Araitzi-i iritsi zaie eskolaratzeko txanda eta badira herrian beste txiki

batzuk, oraindik eskolaratzeko garaia heldu ez zaienak.

LEITZA

GIZARTEA → BESTE HAMAR URTERAKO ERABILIKO DUELA ADIERAZI DU BARNE MINISTROAK

Maxurrenea Guardia Zibilaren esku uztea erabaki du UPNk

Herritarren eta Udalaren iritziei entzugar eginda erabaki dute

JM BARRIOLA

Jorge Fernandez Diaz Espainiako barne ministroa Maxurrenea bisitatzea etorri zen irailaren 9an. Bertan adierazi zuen, guardia zibilek Maxurrenean segituko dutela beste hamar urtetan.

Aurten hamar urte bete dira Nafarroko Gobernuak barne ministeritzari alokatu ziola eta beraz kontratua bertan behera uzteko aukera zegoen. Dirudienez, Leitzako Udala eta Nafarroko Parlamentuko iritzia ziren aurka, UPNko Gobernuak Maxurrenea etxean guardia zibilak jarraitzea du helburu, nahiz eta Leitzako kultur dotazioetan oso eskas dagoen.

Ministroa Maxurrenean zela, herritar talde bat plazan bildu zen eta Maxurrenara aldera joaten saiatu ziren baina guardia zibilak galerazi egin zuen martxa. Horren aurrean, herri guztian zehar zabalduz kontzentratu ziren herritarrek ministroaren jarrera gaitzesteko.

Honen harira, Sorkutuk Iruñean giza katea osatzeko deia zabaldu du. Irailaren 21ean izanen da eta estatuko delegaritza eta Galizia etorbideko guardia zibilaren komandantzia lotuz giza katea egitea dute helburu.



ARGAZKIA: E. BELAUNTZARAN

Guardia Zibilak manifestazioa galerazi zuen Barne Ministroa herrira etorri zenean.

Film laburren lehiaketarako grabaketak herrian

Turismoa sustatzeko asmoarekin, Nafarroako Gobernuak film laburren I. lehiaketa jarri zuen martxan. Horretarako Udalarekin jarri ziren harremanetan eta herrian film labur bat egiteko akordioa lotu zuten. Hamar gidoi aukeratu zituzten, Nafarroako hamar herritan filmatzeko asmoarekin, horien artean Leitzan. Herrian pelikula egiten duena Josu Segura izanen da. Irailean egiten dituzte grabazioak, urriaren 15erako muntaiak osatuak behar dituzte eta urriaren 31n, 19:00etan Leitzako zinean aurkeztuko da pelikula laburra. Ondoren nazioarteko festibalean eta turismo azoketan zabalduko da.

FLASH

Jeiki abesbatzaren deialdia

Abesbatzako kide izan nahi dutenentzat, deialdia zabaldu dute. Hala, interesa duen edonork izena eman eta proba egin dezake. Izen-ematea Karrape Irratian eta Astiz eta Maimur liburudendetan egin liteke.

Kaskagorren Pentatlona

XXIV. Kaskagorren Pentatlona ospatuko da irailaren 21ean. Helmuga Gaztañaga tabernaren parean izanen da. Donostiako Ondarretan igerian hasiko da proba 16:00etan, ondoren Tolosa eta Leitzako mugaraino bizikletaz etorri beharko dute. Gero lasterka egin beharko dute saioa, herriraino. Lagunartean afaldu eta pes-ta eginez bukatuko dute trebeak proba.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Sutea Arinalden

Irailaren 6an arratsaldeko 5ak aldera sute bat gertatu zen Arinaldeko inguruan. Sutea ikusgarria izan zen herri guztitik ikusi zitekelako eta hau itzaltzeko suhiltzaileen ahaleginak ere halakoak izan ziren. Sutea hasi eta oso abudo zabaldu zen, egun horretan hegoaizea ibili zelako eta landareak oso lehor zeudelako. Dirudienez bidekontratik hasi zen sutea. Herriko suhiltzaileez gain, Altsasuko puestotik ere etorri ziren eta helikoptero bat ere ibili zuten hau kontrolatzeko lanetan, igerilekueetatik ura hartuz. Hiru ordutan mendean hartu zuten sutea, baina gauzez berriz indartu zenez herriko suhiltzaile boluntarioek beste irteera bat egin behar izan zuten.

KIROLA → IRAILEKO LEHENENGO ASTEBURUAN

480 mendizalek parte hartu dute mendi martxaren seigarren edizioan

Azkarrenek bi ordu eta erdian egin zuten

Juana Mari SAIZAR

Eguraldia lagun izan zuten irailaren 1ean, mendi martxako parte hartzaileak. Ez zen aurreko urteetako euri edo bero sargoririk, goiza freskoa eta orduak pasa ahala eguzkiak goxatu zituen inguruak. Goiz goizetik hasi ziren lanean antolatzaileak. 7:00etarako plazan bildu eta batzuk inskripzioak jasotzen zituzten bitartean, beste batzuek ibilbidean zehar jarritako edari eta janari postuak antolatu zituzten. Horietaz gain, herrian bertan, sukaldariak paella prestatzen



UTZITAKO ARGAZKIAK

Goian eskuinean, antolakuntza lanetan ibilitako herritarretako batzuk. Beste bi argazkietan ikus litekeen bezala, mendizale asko gerturatu ziren proba egitera.

aritu ziren, halako mendi buelta egin ondoren, indarrak hartzeko premia izaten dutelako mendizaleak. Mendi

martxak batzuetan, 4 edo 5 orduko iraupena izaten du baina azkaragoak ere izaten dira. 2 ordu eta erdian osa-

tu dute buelta aurtan azkarrenek. Ibilbidea Aresoko plazan abiatu eta plazan bertan bukatzen dute. Bertan antolakuntzako kideek bakoitzak egindako denbora apuntatu eta parte-hartzaileei mendi martxako kamiseta ematen zaie opari. Eguerdialdean, paella eta sagardoa izaten da denentzat herriko plazan. Herritarren eta kanpotarren artean giro bikaina sortuz.

ANTOLATZAILEAK GUSTURA

480 mendizalek parte hartu dute mendi martxaren seigarren edizio honetan. Antolatzaileak gustura daude lortu duen arrakasta ikusita. Udalak ere eskerrik eman nahi dizkie partehartzaile guztiei, etortzeagatik eta izandako jarreragatik. Eta nola ez, egunaren aurretik eta egunean bertan herritarrek erakutsitako lanerako borondatea ere azpimarratu dute. Eskerrikasko guztiei!

Uso postuak prestatzen hasiak dira ehiztariak

Bestalde, herriko ehiztariak dagoeneko ehiza denboraldiari begira jarri dira. Hainbestetan amesten dituzten uso paseak iritsi aurretik, uso postuak txukuntzea beharrezkoa izaten denez, aurtengo lanak banatzeko bilera egin dute. Uso postuen enkantea eta sexteoa irailaren azkeneko bi asteburuetan egingo da.



ARGAZKIA: JAIONE OLAZABAL

Aresoarrak Aralarko erromerian

Irailako lehenengo igandean, Aralarko erromeria ospatu zen. Fededunak Guardetxetik hasi eta erromerian santutegirainoko bidea egin zuten otoitzean. Bertan izan ziren zenbait herritar eta urtetako ohiturari eutsiz, ibilaldiaren hasieran inguruko herrietako gurutzeekin batera Aresoko parrokiako gurutzea ere eraman zuten. Aurtengoan Caridad Caballero eta Migel Begiristainek eraman zuten txandaka. Erromeriaren ondotik, penitentzi ospakizuna eta santutegiaren kanpokaldean meza nagusia ospatu zen. 3000 euro inguru biltzen dira egun honetan eta artzapezpikuko misiolari bati ematen zaio.

Ba al zenekien...

Panpanoziri herri aldizkariaren bigarren alea martxan dela? Herritarrok egina, Areso eta Aresoren inguruko kontuak lantzen dituen aldizkaria 2011 urtean kaleratu zen lehenengoz. Bi urtez behin argitaratzeko asmoa aipatu zen orduan eta esandakoa betez, lanean ari dira herritarrak. Lantalde bat osatu eta Mankomunitatearen euskara zerbitzuarekin elkarlanean, albiste, artikulak... osatzen ari dira dagoeneko. Taldea irekia dela gogorarazi dute eta parte hartzeko interesa eta gogoan duen edonork egin dezakeela bere ekarpena.

BAZTAN

GIZARTEA → IRAILAREN 21EAN ELIZONDON

Erdizen inguruko jardunaldia antolatu dute EHNE sindikatuak eta Erdiz Bizirik taldeak

Jakoba Errekondok solasaldia eskainiko du larunbat goizeko 10:30ean Arizkunenean

*ke naturalak: ingurua-
ren babesarako eta to-
kiko garapenerako au-
kera?* izenburupean ma-
hai-ingurua egingen da
eta 13:30ean jardunal-
diaren bukaera izanen
da.

**Pirritx, Porrotx eta
Marimotots
Elizondon**

TTIPI-TTAPA

*Erdiz: Tokiko garape-
na eta ingurugiroaren
babesa* izenburupean
jardunaldia antolatu du-
te EHNE sindikatuak eta
Erdiz Bizirik taldeak irai-
laren 21ean Elizondoko
Arizkunenea Kultur
Etxean.

Egitarauari dagokio-
nez, 10:00etan ongi
etorria eta aurkezpena
eginen da. 10:30ean *To-
kiko baliabideak eta ga-
rapena* solasaldia es-
kainiko du Jakoba Erre-
kondok. 11:30ean atse-
denaldia. 11:45ean *Par-*

Baztan Ikastolako Gu-
raso Elkartearen ekime-
nez, aurten ere Pirritx,
Porrotx eta Marimotots
Elizondora etorriko dira
irailaren 29an. *Sentitu,
pentsatu eta ekin* ikuski-
zuna eskainiko dute
Baztan frontoian,
18:00etan. 3 urtetik goi-
tiko hurrek sei euro or-
daindu beharko dute.
Txartelak: Elizondoko
Trinketean, Intza ostatu-
an eta Fantxike dendan,
Doneztebeko Rural
Kutxan, Lesakako
Atxaspi eta Berako Er-
rekalde ostatuan.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Giro bikaina Txokotoko bestetan

Irailaren 6ko txupinazoarekin hasi eta hilaren 8ko zezensuzkoa bitarte giro ederra izan zen Elizondoko Txokoto auzoko bestetan. Bien bitartean, hainbat ekitaldi izan ziren, erraldoiak eta kilikiak, bonba japoniarrak eta jokuak tikienda-ko, Baztanzopak eta Santiago Errotaberearen taldeak prestatutako zikiro-jatea handientzat... Bikain!

ABELZAINZA

Behi azienda pirenaiakoaren lehiaketa-enkantearen 26. edizioa asteburuan ospatuko da Elizondon

TTIPI-TTAPA

Behi azienda pirenaiakoaren na-
zio mailako lehiaketa-enkantearen
26. edizioa egingen da irailaren 21 eta
22an Elizondon.

Larunbat goizeko 9:00ak baino
lehen sartuko dira aziendak eta or-
du horretatik aitzinera hasiko dira
txanda kalifikatzaileak. Lehenago,
08:30ean, Baztango aratxea ibilbi-
de gastronomikoaren inaugurazioa
eginen da. 16:30etik 20:00etara be-
hi aziendaren erakustaldia eta ko-
mentatutako txanda kalifikatzaileak

eginen dira. Igandeko egitarauari
dagokionez, 9:00etatik 12:00etara
azienda erakustaldi eta kalifikatze
komentatuak egingen dira. 10:00eta-
tik 14:00etara artisau feria egingen
da. 11:30ean, Nafarroako aratxea
eta Gorramendi gasna dastaketa.
12:00etan pintxo, salda eta busti le-
hiaketako sari banaketa. 12:30ean
azienda enkantea egingen da eta
13:00etan azienda lehiaketaren sa-
ri banaketa. Ekitaldiak akitzeko, ara-
txe pirenaiako baten zozketa egingen
da.

EL ZAPATO DE **inma** ZAPATAK

www.elzapatodeinmazapatak.es
inma@elzapatodeinmazapatak.es

IREKI BERRIA

Gizon, emakume, gazte eta haurrendako zapatak
Kirol eta mendiko zapatak
Osagarriak: boltsoak, gerrikoak eta guardasolak
Konponketak egiten ditugu

T 948 45 25 87 | **LARUNBAT
ATSALDETAN IREKITA** | Santiago, 38 behea
31700 Elizondo. Nafarroa

Mari Cruz
LENTZERIA

**%10 EKO
DESKONTUA**
30etik gorako
gastuan

HEDABIDEAK → KANAL BERRIA

Iruñerrian emititzeko baimena lortu du Xaloa Telebistak

Astean 39,5 ordu eskainiko ditu, euskaraz eta gaztelaniaz

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak LTD Lurreko Telebista Digitalaren sei kanal berri jartzea baimendu du: bi autonomiko eta tokiko lau, horietatik hiru Iruñerrian eta bat Tafallan. Hain zuzen, Xaloa Kultur Elkartek lortu du Iruñerrian emititzeko baimenetako bat, telebista autonomikoa martxan jartzeari uko egin ondotik. Urtebete izanen du Xaloak Iruñerrian programazioa martxan paratzeko. Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez, astean 39,5 orduz herritarrendako saioak eskainiko ditu, euskaraz eta gaztelaniaz.

NAFARROA OSORAKO BI ESKAINTZA BERRI

Nafarroan libre zeuden bi kanal autonomikoak martxan paratze-

ko baimenak Abian Komunikazioa S.L. sozietateak eta Vaughan multimedia taldeak lortu dituzte.

Abian Komunikazioak eduki orokorreko NBR TV proiektua garatuko du. Vaughan multimedia taldeak, berriz, ingelesa ikasteko programazio tematikoa eskainiko du.

TOKIKO KANALAK

Xaloarekin batera, Hamaika Telebista Hedatzeko Taldeak eta Abian Komunikazioa SL taldeak lortu dituzte Iruñerriko baimenak. Hamaika Telebista tokiko hamar telebista-kate ditu Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, eta hiru egunkari-talde ditu sustatzailerik: Noticias (Diario de Noticias eta Deia argitaratzen dituenak), Berria eta Hitza, eta EKHT (Gara eta Le Journal argitaratzen dituenak). Eduki orokorrak proposatu dituzte, eta astean 131 orduan bere programazioa eskaitzea, euskaraz hutsean.

HEZKUNTZA

Baztan eta Zugarramurdi-Urdazubiko herrietako eskolen besta igande honetan egingen da Arraiozen

TTIPI-TTAPA

Ikasturte berria indarrez eta gogoz hasteko, Arraiozko Eskolako Guraso Elkartek besta ederra antolatu du igande honetarako, irailak 22, Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztango herrietako eskolen besta. Duela sei urte hasi ziren topaketa hau egiten, herrietako eskoletan ikasten duten ikasleak eta hauen familiak elkarrekin harremanetan jartzeko helburuarekin, eta gisa honetara, «gure eskolak publikoak, euskaldunak eta herrikoiak direla aldarrikatzea».

10:00etan herriko txistulariek ongie-

torria egingen dute. Ondotik, mendi ateraldia egingen dute Auzpe aldera. Antolatzaileek diotenez, sei urtetik beherako umeek herrian barna ibilal-ditxo egitea komenigarriagoa izanen da. Ondotik, Laxoako plazan, umeendako tailerrak izanen dira: aurpegi margotzea, estanzazioa... 13:00 aldera trikitixa emanaldia izanen da leku berean. Eguerdian, bazkaria egingen dute frontoian eta postrea eta kafea ere izanen dira. Ondotik, Santxotena musikariak giroa alaituko du. Arratsaldean puzgarriak izanen dira BKKren eskutik.



UTZITAKO ARGAZKIA

Igandean Arraiozera gateko gonbitea egin dute ikasleek eta Guraso Elkartek.

zalain
JATEETEA - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com

zalain

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA

T. 948 453 444 | M. 629 659 583
ARIZKUN

IPARLA kirolak

ttipi baxela

%8ko
DESKONTUA
30etik gorako
gastuan

BAZTAN

GIZARTEA → IRAILAREN 20 ETA 21EAN

Gazteluko mugarrria inauguratuko dute Amaiurko errebestetan

Nafarroa Bizirik taldearen eskutik

TTIPI-TTAPA

Amaiurko errebestak ospatuko dituzte aste hondar honetan. Ohiko ekitaldiekin batera, Gazteluko mugariaren inaugurazioa egingen da, Nafarroa Bizirik-en eskutik.

ORTZILAREA, IRAILAK 20

- 18:00etan Haurren talo tailerra.
- 19:00etan Herritarren arteko pala desafioa: Huarte II- Jauregi II; In-

da-Cebrian.

- 21:30ean Afaria elkar-tean.
- 23:30ean kontzertuak.

LARUNBATA, IRAILAK 21

- 12:00etan Gazteluko mugariaren inaugurazioa Nafarroa Bizirik-en eskutik: dantzariak, musika...
- 14:00etan zikiro jatea Mikel Salaberriekin.
- 20:00etan Mutildantzak, gaita eta larrain dantza.
- 21:00etan Odolki eta zinger jatea.
- 23:00etatik aitzin dantzaldia: DANTZADI.



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztandarren Biltzarra Calatayudeko txirrindularitza proban

Gutxitan gertatzen da hiru lagun eta hare gutxiago bi kilometroren bueltan bi-zi direnak laisterketa batean bakarrik ihes eginda iritsi eta podiumeko hiru lekuak betetzea. Ion Zeberio (Transbidasoa-Sinertentic-Euromaster) eta Patxi Meoki (AEL) elizondarrak eta Iñaki Villoria (Transbidasoa-Sinertentic-Euromaster) iruritarrak irailaren 8an marka hori lortu zuten Calatayuden. Garaipena eta mendiko sailkapena Ion Zeberio lortu zituen, Meoki bigarren postua eta Villoria hirugarrena, bakoitzak bere mailan (Senior, Master-50 eta Master-40, hurrenez hurren) lehen postua eskuratuz, bide batez ere Transbidasoa-Sinertentic-Euromaster taldeak taldekako garaipena lortu zuen.



ARGAZKIA: ITXASO ARIZMENDI

Oronozko ehiztarien denboraldi hasiera

Irailaren 1ean hasi zen basurdeen ehiza denboraldia eta Oronozko ehiztariak hasiera ona eman diote sasoiari. Argazkian ikus daitekeen bezala, gustura ageri dira hainbarte basurde bota ondotik.

homeopatía
KONTSULTA ELIZONDON
JUAN MARTIN-BALLESTERO
Mediku Homeópata

Tfnoa: 633 767 609 - Santiago, 58 behea - Elizondo

HOMEOPATIA 200 urte baino gehiago dituen medikuntza naturala da.

Bere tratamendua pertsonaren indibidualtasunean oinarritzen da, bakoitzari dagokion botika emanez.

Organismoari osasuna berreskuratzen laguntzen dio. Haurtzaroan, adinari dagokion gaixotasunak tratatzeaz gain, berri ere ez eritzeko mekanismo naturalak ematen ditu.

Helduen kasuan, homeopatiak hainbat gaixotasun senda ditzake, medikuntza tradizionalak sintomak hobetzea lortzen duen lekuan, eta era berean, luze ematen duten gaixotasun kronikoak arintzen ditu.

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → ERREPASOA

Kontzertu, zikiro-jate eta ezkontzen lekuko izan da lezea asteotan

Abuztuko kontzertuan irudiak proiektatu ziren

Koro eta Margari

Gehienok ezagutzen ez ditugun taldeak ari ziren abuztuaren 28ko lezeko kontzertuan, baina erran behar da espektakulu ikusgarria izan zela, batez ere diotenez hain ona den "Crystal Fighter" taldearena.

Aipatutako talde famatuko kideek janzkera eta saltu/dantza/mugimentu bitxiak egiten zituzten, biziki ikusgarriak eta erakargarriak. Gainera, lezea gauez ikustea berez espektakulu bat da, eta horri gehitu behar zaio paretetan proiektatzen zituzten irudi erraldoiak. Gau goxoa izan zen, eta leze barnean ostatu ttiki bat ere emana zuten.

Neurri ttiki batean, baina lehen antolatzen

ziren gaupasak gogorazi zizkiguten.

Errefetako zikiroa

Eta kontzertuaren ondotik, lezera itzuli ginen berriz irailaren 1ean, errefetako zikiroa bai-kenuen. Aurten aldaketa ttiki bat egin zen mahaiak jartzeko maneran, azpiko aldean hiru le-rrotan eman baitziren. Aldaketa hunek giroa bixitu zuen, jendeak errextasuna baitzuen harat-hunat, mahai batetik bertzera ibiltzeko, eta horrek giro polita eman zuen.

Aurten soka-dantza ere ederra izan zen, luzea eta giro animatuarekin. Azken urteetan jendea mottel ibili da, baina aurten afera aldatu da, eta jendea gus-tura etorri zen trapue-tatik lotuta lezetik plaza-raino. Gainera Joxe Jabierek "ruta berri bat" edeki zuen, Kataleneko aldera eramanez soka-dantza.

Bestetako zozketa

Bestetako zozketa-
ren emaitza errefeta egunean eman zen jakitera. Hauek dire sari-
tutako zenbakiak:

- 04984 (Donostiako "La Perla" talasotera-
piarako 2 sarrera).
- 00590 (Bildots bat
eta arno kaja bat).
- 01047 (Kutxa
sorpresa bat).

Saria biltzeko epea
urriaren 1a arte da.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Lezeko paretetan proiektatzen ziren irudiak kontzertuaren gauan. Honako huntan aker bat.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Ezkontza lezean

Zugarramurdira maiz etortzen diren Arantxa eta Joxemak bere ilusioa bete zuten irailaren 3an: lezean ezkondu ziren. Ondotik besta herrian egin zuten, Otxote talde bat barne zutela.

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Asegururak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
- Baserri, bordia, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

JATETXEA-ERRETEGIA

MONTXO

OSTATUA-TABAKO-DENDA



Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarineatik
2 km.tara

PLATER KOMBINATUAK • OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

GIZARTEA

LANA → ABUZTUKO DATUAK

1.334 lagunek lan bila segitzen dute eskualdean

TTIPI-TTAPA

Azkeneko urte erdi-ko beheitirako joerarekin bukatzeko, zertxobait goiti egin du langabetu kopuruak eskualdean abuztuan. Hilabete hondarrean 1.334 lan-

gabetu zeuden Doneztebeko Enplegu Bulegoan izena emanak, uztaillean baino 3 gehiago. Beraz, %0,23 igo da langabetu kopurua. Nafarroa osoko datuei erreparatuz, %0,5 jaitsi da

langabezia. Langabezia-prestaziorik kobratzen ez dutenen kopurua goiti doa (%45,65). 494 kontratu gauzatu ziren abuztuan Doneztebeko bulegoan, 29 barririk mugagabeak.

LANGABEZIA-DATUAK HERRIKA | 2013ko abuztua

Herria	Populazioa 2012	Lanik gabe guztira	Langabezi-prestaziorik kobratzen dute?	
			EZ	BAI
ARANO	121	4	2	2
ARANTZA	645	17	5	12
ARESO	276	3	3	4
BAZTAN	8.035	358	164	178
BEINTZA-LABAIEN	242	12	9	3
BERA	3.798	169	70	99
BERTIZARANA	628	49	24	25
DONAMARIA	436	24	12	12
DONEZTEBE	1.694	133	78	55
ELGORRIAGA	205	14	7	7
ERATSUN	160	11	7	4
ETXALAR	818	32	15	17
EZKURRA	164	7	3	4
GOIZUETA	758	50	23	27
IGANTZI	634	21	10	11
ITUREN	518	27	11	16
LEITZA	2.916	162	75	87
LESAKA	2.807	148	70	78
OIZ	155	8	3	5
SALDIAS	118	10	4	6
SUNBILLA	665	44	17	27
URDAZUBI	378	3	0	3
URROZ	180	4	4	0
ZUBIETA	295	18	8	10
ZUGARRAMURDI	243	8	3	5
Denetara	27.189	1.334	(%45,65) 609	(%54,35) 725

KULTURA

BERTSOLARITZA

Txapelketa Nagusiko finalaurreko saioa Elizondon jokatu da

TTIPI-TTAPA

Lau urteko itxaronaldiaren ondotik, irailaren 29an Villabonan (Gipuzkoa) jarriko da martxan Bertso Txapelketa Nagusiko zurrumbilao. 43 bertsolarik abiatuko dute ibilbidea, txapela beltzaren itzalaren bila. Tartean, eskualdeko hiru ordezkari izanen dira, lesakarrak hirurak: Eneko Fernandez, Erika Lagoma eta Xabier Silveira. Silveirak laugarrenez hartuko du parte Txapelketa Nagusian, Lagomak bigarren eta Fernandezek estreineko aldia izanen du.

Hamalau saiok osatuko dute 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Saio horietatik bakarrik jokatu da eskualdean, Elizondon, azaroaren 23an, baina finalaurreko saioa izanik, bertan abesteko txartela aurrez irabazi behar. Eskualdeko ordezkarien artean, Eneko Fernandez izanen da errima eta doinuekin dantzan aritu beharko duen lehena. Markina Xemeingo udal pilotalekuan urriaren 5ean jokatu den kanporaketan abesteko du. Erika Lagoma eta Xabier Silveira berriz, elkarren arimoan izanen dira, Altsasun urriaren 13an jokatu den kanporaketan abestea egokitu baitzaie bie.

Sarrerak, internet bidez erosteko aukera izanen da www.bertsosarrerak.eu orrialdean eta baita aurrez zehaztutako salmenta puntuetan ere. Kanporaketako sarrerak, 10 euro balio dute, bazkideek 6 euro ordaindu beharko dituzte eta gazteek 4.

Saiok saio joango da argitzen, nor ariko den kantuan Maialen Lujanbiorekin batera, BECeko finalean. Bitartean, gozatu bertsozale!

Gierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORNOZ · MUGAIRI

kattagorria
ttiipi txartela
%10eko
DESKONTUA
leintzerian

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittirio, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxo: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxo: 948 133 713

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN AZKEN ASTEBURUAN

Xiberotarrak eta Hiru Soinu taldeek alaituko dituzte Ibarrungo bestak

Lehen aldikoz
FlashMob
dantza
emanaldia
eskainiko dute

Franck DOLOSOR

Irailaren azken aste-buruan, ohiturari jarraikiz Ibarrungo bestak ospatuko dira. Aurten ere animazio anitz iraganen da ortziral gaueko xerri ttiki jatearen ondotik. Gau hori Xirriska taldeak alegeratuko du. Igan-dean ahatik Xiberotarrak, Hiru Soinu, Senpereko laukotea *Orratzetik Hari* lehen diska berriki plazaratu duena, eta Saltoka taldeek alaituko dute Ibarrungo plaza musika, kantu eta dantzekin. Astelehenean, Kuxkuxtu txaranga eta Zaldibiako trikitilariak ibiliko dira karriketan barna. Aurten lehen aldikoz FlashMob dantza emanaldia eskainiko dute eta errepikak

egitekoak dituzte irailaren 17, 19, 23 eta 24ean, 19:00etan. Besta on deneri!

Urdazuri aldeko guden oroitzapena

Burrunba haundia entzunen da gure herrian heldu den irailaren 22an Urdazuri aldeko guden berrehugarren urtemugaren karietarat. Goizeko 9:30etan danborrada egingen da karrika nagusian eta oren erdi geroago meza ospatuko da. Elizikizunetik lekora, Frantziako soldaduen arma hartzea antzeztuko da eta lore eskaintza egingen da hilen oroitarrian. Geroago, danborrada, zintzur bustitzea eta bazkaria apailatu dituzte Ibarrun auzoan.

Bide berrituak

180.000 euro baliatuko ditu aurten herriko etxeak bideak berritze-ko, hauetatik 65.000 Pi-

rinio Atlantikoetako departamenduko Kontseilu Nagusiak emanak. Orotarat 230 kilometro bide zaindu eta berritu behar dira urte guziz. Landalulua, Aroztegia, Xurienborda, Olaso, Aintzira, karrika nagusia, Biperrenborda, Urguri, Inarga eta Motxokoborda aldeetan egin diren lanak burutatu dituzte.

Elkarteen bizia uda bururatzearekin bat

Uda bururatzearekin batean, elkarteek beren lana hasten dute berriz. Yoga ikastaldiak astelehen guziz eskainiko dituzte 14:30 elkartetxean. Xehetasunak 0621074429. Bertalde, futbola nahiago dutenek hitzordua dute astearte eta ortzegunetan 19:30 haundienentzat; eta asteazken, ortzegun eta larunbatetan gazteenentzat. Argibideak 0689698370 edo 0676962317.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Jean Haritschelhar Senperen

Euskaltzainburu ohiaren heriotzak oihartzun haundia sortu du irail hastapenean. Haritschelhar 90 urtetan zendu da barkatzen ez duen gaitzaren kontra borrokatuta. Urteetan ez da alfer egon, Euskaltzaindiako burua izateaz gain, irakaslea, Baionako euskal museoko zuzendaria, Baigorriko auzapeza, pilota eta bertsularitza sustatzailea izan baita bertzeak bertze. «Euskalduna sortzez, frantsesa legeaz eta europarra ametsez» molde hortan erakusten zuen bere burua, fermuki baina baita ere beti ezagutu diogun irriarekin. Enbata eta Herria astekarietan idazten zuen Haritschelhar zenak eta hortaz zion: «Tinta dut beltza, baina ez dut nehor beltzatzen; luma dut xorrotza, baina ez dut nehor zauritzen». Baigorriko semeak lotura hertsia zuen gure herriarekin berriki arte urte guziz etortzen baitzen Herri Urratserat. Bertan, euskararen aldeko mintzaldi sutuak eskaini izan ditu behin baino gehiagotan. Gainerat, Euskaltzaindiak Senperen apailatu izan dituen ekitaldietan ere parte hartu zuen.



GIZARTEA

GIZARTEA → BEDERATZIURRENEKO LEHEN EGUNEAN

Arantzazu eta Loiolara bidaia egin du Arkupeak elkarteak

TTIPI-TTAPA

Aspaldiko ohiturari eutsiz, Arkupeak elkarteak Arantzazura joan da, Bederatziurreneko lehen egunarekin batera. Aurtengoan 267 bazkide joan dira bost autobusetan. Elizkizunak, Pello Zabalak gidatutako penitentzia bateratuarekin. Ekitaldia bukatzerakoan, frantsiskotarrengana hurbildu ziren, hauek eskuak buru gainean jarri barkamena ematen baitzuten. Ondotik, 15 apai-ze emandako meza ospatu zen. Ahots ederreko abesbatza mistoa aritu zen eta elizan bildutakoek ere beraiekin kantatzeko aukera izan zuten. Berriz ere autobusa hartu eta Kiruri jaltetxean bapo bazkaldu zuten eta Joseanen musikarekin gozatu zuten bazkalondoa.

BIDAIA GEHIAGO

Irailaren 10 eta 11n, elkarteko 105 bazkide Carlomagnoaren bidea egitera joan ziren, bi taldetan banatuak. Irailaren 14an Lezora joatekoak ziren. Hurrengo alean emanen dugu ateraldi hauen berri.

Elkarteko mendizaleek, bere aldetik, San-

tiagorako Bidean segitzen dute. Hiru etapa egin dituzte dagoeneko eta laugarrena Gares eta Lizarra artekoa izanen da, 24 kilometro. Negua baino lehen beste bi eginen dira: Lizarra eta Urantzia (Los Arcos) artekoa eta Urantzia eta Biana artekoa. Datorren urtean, falta den bidearen erdia eginen da eta 2015ean bukatuko da ibilbide osoa.

MACHU PICCHU

Irailaren 6an, Machu Picchura joateko izen emandakoen bilera egin zen. Barceló Bidaiak enpresako arduradunaren azalpena oso interesgarria izan zen eta bidaiariak lasaitu zituen, Cusco inguruko al-tueragatik inolako arazorik ez dela esaterakoan. Azaroaren 10etik 22ra egingen dute bidaia, han udaberria denean.

Urte bukaera baino lehen beste bi bidaia gelditzen dira egiteko: Lodosara eta Lizarrarako eta Kanariar Uhartetako, Tenerifera zehazki. Honen informazio zabala ematen da elkartearen azken boletinean. Aldizkari honen gai nagusia bazkidea-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko bazkideak Arantzazun ageri dira goitiko bi argazkietan eta Santiago Bidea egiten behekoan.

ren eguna da eta bertan egingen diren ome-

naldien artean, ehun urte bete dituen Modes-

ta Huarte Iñarrearena azpimarratzen da.

Lizun
GAZTANDEGIA
Sunbilla - Tel: 948 450 862

ZUBIONDO
Jatetxea
ungardotegia jatetxean
Alasta karrika
TEL: 948 649 377
BERA NAFARROA

ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58



%10eko DESKONTUA ezkontzetarako
lore apaingarri eta
andregaien lore-sortetan
Gainera,
OPARI SORPRESA bat
T. 948 451 758 • Intzakardi, 8 • DONEZTEBE



Irailak 20
UDAZKENEKO
MERKATUAN
Donezteben
Zarpigurutze, 1 • DONEZTEBE • 948 450 252

Rekordatorioak egiten
ditugu



Nahi duzun argazki eta
testuarekin prestatua

ttipi-ttapa
Hoskontoko b. 7 | IESARRA | 948 635 458

EZKONTZAK

Jon Telletxea Zozaia eta **Maria Agirre Elizondo**, Lesaka eta Berakoa, ekainaren 22an.

Javier Diaz de Liaño Espinal eta **Adriana Maria San Julian Arrupe**, Iruñekoak Lesakan, abuztuaren 31n.

Javier Iriarte Sansiñena eta **Agurtzane Bengotxea Agerrebere**, Etxalar eta Baztangoa, abuztuaren 31n.

Joxemari Ugalde Beain eta **Arantxa Genbe Villafranca**, Donostiakoak Zugarramurdin, irailaren 3an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Enai Ariztimuño Olano, Leitzakoa, irailaren 1ean.

Jokin Telletxea San Sebastian, Berakoa, abuztuaren 15ean.

Aieko Migeltorena Arretxea, Berroetako, abuztuaren 28an.

Gonzalo Nuñez Fagundez, Lesakakoa, abuztuaren 24an.

Aiur Garro Ordoki, Lesakakoa, abuztuaren 30ean.

Ainhitze Mariezkurrena Asensio, Zubietakoa, irailaren 7an.

Ekhi Mariezkurrena Asensio, Zubietakoa, irailaren 7an.

Oier Lopez Oteiza, Doneztebekoa, irailaren 4ean.

Saioa Danboriena Padilla, Etxalarakoa, abuztuaren 29an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Maria Consuelo Hernandez Barrenetxea, Elizondon, irailaren 1ean, 83 urte.

Pedro Mutuberria Telletxea, Zubietakoa, abuztuaren 29an, 85 urte.

Domingo Elizagirre Indakoetxea, Elgorriagakoa, abuztuaren 29an, 70 urte.

Maria Asuncion Andiarrena Etxekolanea, Oizkoa, irailaren 3an, 94 urte.

Martin Lizarraga Martirena, Leitzakoa, irailaren 3an, 86 urte.

Jesus Maria Juanenea Mariezkurrena, Saldiaskoa, irailaren 6an, 54 urte.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERA (SAN JOSE) | LESAKA | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | BETELU
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

Duela sei urte «hutsetik hasita» Hondarribian arraunean hasi zenean amestu ere eginen ez lukeen oparia jaso zuen Agoitz Irazoki Altzugarai lesakarrak bere 28. urtebetetze

egunean: Donostiako Kontxako Bandera ospetsua irabazi zuen irailaren 8an. Lehendik bertze nafar batek, Aitor Dorronsoro gorritiarak Castro taldearekin bitan irabazi zuen

Donostiako bandera, baina ttipi-ttapak hartzen duen eskualdeko arraunlari batek lortzen duen lehena da (Johnny Telletxea lesakarrak ere bi jokatu zituen Hondarribiarekin).

Agoitz IRAZOKI | Kontxa irabazi duen Hondarribia Arraun Taldeko arraunlari lesakarra

«Arraunean garaipenengatik hasten bazara bigarren egunean utziko duzu»

Aitor AROTZENA | LESAKA

Arraun munduan «kasualitatez» hasi zela aipatu digu lesakarrak. «Hondarribiako bigarren ontzia osatzeko jendea behar zutela aipatu zidan Gonzalo Carrionek, aita lesakarra duen arraunlari mitikoa, eta halaxe agertu nintzen, deus ere jakin gabe». Lehendik bizikletarekin edo lasterka ere ibiltzen zen lesakarra, «baina inoiz ez nintzen sobera abila izan kirolean». Arrauna probatu eta arra barne barneraino sartu zaiola onartu digu, halere: «Arraunean garaipenengatik edo banderak irabazteagatik hasten bazara, akabo! Horrek bakarrik asetzen bazaitu, bigarren egunerako utziko duzu. Gipuzkoako talde batean ari bazara motorra ezin du izan garaipenak, etxeko jendearekin osatutako taldeak direlako. Oriok 2007an irabazi zuen azken aldiz Kontxa, Hondarribiak 2005ean... Azkenean ofizio hau gustatu egin beharzaizu eta irabazteak baino ilusio handiagoa egiten dizu ongi prestatzeak eta entrenamendu eder batzuk egiteak, hori ez da diruarekin ordaintzen» aipatu digu ilusioa begietan margoturik duela. Hiru denboraldi bigarren taldearekin egin eta gero, lehenbiziko ontzira sal-



ARGAZKIA: JOXEMA IRIGOIEN

Hiru urteotan ACTn Irazokik irabazi duen hamabigarren bandera izan da Donostiakoa.

to egin zuen 2010ean. «Lehenbizian apurua ematen zidan, ACT ligan dena handiagoa da, jende pila bat ikusten, telebistako helikopteroa bueltaka... Kirola eta esfortzua bera da, baina ingurua aldatzen da», dio. Azken hiru urteetan hamabi bandera irabazi ditu Hondarribiarekin, baina dudarik gabe Donostiakoa da handiena. «Azkeneko aste horretan bakarrik, Urdaibaitik 3 segundora ginela jakinda, ikusi nuen nere burua bandera hori lortzeko posibilitadearekin, gainerakoan ez nuen Kontxa irabazteko ametsik ere eginen... Handia izan zen, urean berdintsuak dira estro-

INDARRA ETA PISUA
«Indarra baino gehiago, erresistentziako kirola da arrauna eta urtetik urtera pisuari ere garrantzi gehiago ematen zaio. Ni hasi nintzen 80-81 kilo izaten ginen banazbertze, orain 77 kilo. Normalean arraunlari arinenak proakoak eta hankekoak izaten gara, ontziaren zati estuena hor delako».

«Urtean bi azterketa egiten dizkigute taldean. Horiek eta Kontxako sailkapeneko urduritasun handiko egunak dira»

pada guziak, baina Kontxaren inguruan dagoen guzia ikaragarria da!».

URTE OSOKO LANA

Kanpotik arrauna udako kirola bezala ikusten bada ere, urte osoa ematen dute entrenamenduetan, gimnasioan pesak egiten, ergometroan, neguan ere hiru bat aldiz itsasora ateratzen... «Ofizioa ez bazaizu gustatzen arrunt kirol gogorra da, baina lan hori gustatzen bazaizu segi eta segi eginen duzu».

Kontxako Bandera polemikarekin irabazi zuen Hondarribiak, Bermeoko Urdaibaikoak gainera etorri zitzaizki-

en uretan itzulerako luzean eta estropada bukatu eta gero epaileek hartutako erabakiarekin. Hori gertatu ezean nork irabaziko lukeen inoiz ez dela jakinen us-te du lesakarrak, «ziabogan borts segundo gibeletik ginen eta palek txoke egin zutenean segundo bat aitzinetik, oraindik sei minutuko lana gelditzen zen eta gure trainerua fin zetorren...», baina epai zuzena izan zela dio Irazokik. Ondotik gertatutakoarekin «trixte eta lur jota» sentitu da: «35 urteko arraunlariak negarez ikusita, zaleen arteko oihuak, irainak... hori ikusita beheiti etorri nintzen, ezin zara poztu, nahiz bandera irabazi». Izan ere, hain kirol ikusgarria eta gogorra maiz ikamikarekin lotua izaten da, zoritxarrez: «Herrien arteko pike sanoak ongi daude, baina hortik goiti pasatzen denean...».

Aurtengo denboraldia ezagutu duen berdinuena izan dela aipatu digu Irazokik. «Lehenbiziko momentutik ikusi zen zortzi traineru berdintsu genbiltzala. laz deskuido bat eginez gero laugarren gelditzen zinen, aurten hamekagarren ere egin dugu ligan eta Kontxa irabazi dugu! Kaiku nagusi izan da ligan eta Kontxan laugarren...».

HERRI KIROLAK → PROBA KONBINATUAK

Berako taldea nagusitu da Nafarroako Herriz Herri Txapelketan

Arraiozko taldea hirugarren sailkatu da

TTIPI-TTAPA | BERA

Nafarroako Herriz Herri Txapelketako lehen proba konbinatuan (lokotx biltzen, zaku lasterketan, aizkoran, lasterka eta arpanean) eta bigarren proba konbinatuan (txinga eramaten eta ingude altxatzen), bietan nagusitu da Berako taldea aurtan. Joan den abuztuaren 31n jokatu zen Herri Herri Txapelketaren azken jardunaldia Berriozarren eta egun horretan etxeko taldeak irabazi zituen bi proba konbinatuak. Baina aitzineko jardunaldietako emaitzak konbinatu hartuz, Bera izan zen txapeldun.



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

Herriz Herri Txapelketan Berako taldearekin aritu diren kirolariak.

dietako emaitzak konbinatu hartuz, Bera izan zen txapeldun.

Aurtengo Herriz Herri Txapelketan Berriozar, Menditarrak, Arraioz eta Berako taldeak parte hartu dute

eta honela gelditu da sailkapena: lehen proba konbinatuan, Bera txapeldun, bigarren Menditarrak, hirugarren Arraioz eta laugarren Berriozar. Bigarren konbinatuan, Bera txapeldun, Be-

rriozar bigarren, eta Arraioz eta Menditarrak hirugarren eta laugarren, hurrenez hurren. Bigarren konbinatuan berdinketa egon zen hirugarren posturako eta berdinketa hausteko in-

gude proba egin zuten. Honetan Arraiozek irabazi zuenez, hirugarren postua beretzat izan zen.

Euskal Herriko txapelketak

Uda honetan jokatu-tako Euskal Herriko herri kirol txapelketetan eskualdeko kirolariak ibili dira. Orga joko txapelketan, erraterako, Lazaro Bujan leitzarrak parte hartu du. Emakumezkoen Euskal Herriko Txinga Eramate Txapelketan, Iturenen bizi den Nagore Diaz nagusitu da eta Lesakan bizi den Santa Sousa bigarren izan da. Euskal Herriko Lasto Altxatze Txapelketan, azkenik, Eneko Telletxea eta Arkaitz Retegi igantziarrek parte hartu dute.

ERREMONTA → KUTXA TXAPELKETA

Urrizak bigarren urtez segidan irabazi du buruz burukoa

30-26 irabazi zion Julen San Miguel-i

TTIPI-TTAPA

Javier Urrizak bigarren urtez segidan irabazi du buruz buruko erremonte txapelketa nagusia. Irailaren 7ko final gogorrean, 30-24 irabazi zion Julen San Migueli doneztebarrari. Bi finalistek xingola beltza eramane zuten, Aritz Juanenearen aitaren

heriotzagatik dolumina erakutsiz. Galarretako harmailak jendez gainezka ageri ziren. Partida gogorra jokatu zuten bi erremontelariak. San Miguel 2-7 aitzinetik paratu zen, baina berdinketa batzuen ondotik, 19-12 aitzindu zen Iruñekoa eta aldetxo horri eusten joan zen, lana gogotik eginez.

Urrizak onartu zuen aunitz sufritu zuela, «ez naiz ongi hasi eta abantaila hartu dudanean ere



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES

Julen San Miguel pilota eramaten, Urriza adi duela, irailaren 7ko finalean.

ez dut gozatu. Erritmoa hartzea kosta egin zait eta ez naiz eroso ibili kantxan. Defentsak salbatu nau, erasoan ez baitut asmatu». Txapela familiakoei eskaintzeaz gain, oroitzapen

berezia izan zuen Juanenearentzat, «gaizki pasatzen ariko delako».


San Miguelek berri, sakearekin ez zuela asmatu aipatu zuen, «baina pilotetan ongi jokatzen dudala uste dut eta

gustura ibili naiz. Urrizak aunitz jotzen dio pilotari eta ongi defendatzen du eta berari irabaztea arras zaila da. Finala galdu arren, txapelketa ona jokatu dut eta gustura ibili naiz».

irailak 19 - urriak 3

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Ospakizunak



ARRAIOZ | 2013.09.22

Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztango herrietako eskolen besta

Gure eskola publikoa, euskalduna, herrikoia lelopean Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztango herrietako eskolen besta Arraiozen egingen da irailaren 22an.

Bertsolaritza



LESAKA | 2013.09.21

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren simulakroa

Bortzirietako Bertso Eskolak antolatuta, Txapelketa Nagusiaren simulakroa hilaren 21ean Lesakan, Xabier Silveira, Julio Soto, Erika Lagoma eta Eneko Fernandezekin.

Ospakizunak



ITUREN | 2013.09.21

Joaldunen Eguna egingen da irailaren 21ean

Goizean joaldunak baserri base-ri eta herrian ibiliko dira trikitilari-kin, eguerdian aizkora saioa eta bertsolariak izanen dira eta ondotik, herri bazkaria eta dantzaldia.

Irailaren 22an Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztango herrietako eskolen besta.

ETXALAR-SARA

Lizaietako besta

Irailaren 22an Lizaietako lepoan: ehiza akordioaren izenpetzea, animazioak, merkatua, zikro-jatea...

BERA

Kontrabandisten besta Ibardinen

Irailaren 27 eta 28an.

ITUREN

Joaldunen eguna

Irailaren 21ean.

LEITZA

Aurrera eguna Urriaren 5ean.

Kontzertuak

BERA

Organo kontzertua

Irailaren 21ean 19:00-etan bisita Esther Iñi-gezekin eta 20:00etan Monica Melvovaren organo kontzertua.

IRUÑEA

Iruñea kantuan Angel Mariezkurrenarekin

Urriaren 5ean Iruñea kantuan Angel Mariezkurrenak antolatuta. Parte hartuko dutenak: Jaione Olazabal, Alberto Zunzarren, Laura Latienda, Pantxo Carrera, Maite Itoiz & John Kelly, Mendigoiti ikastetxe publikoko ikasleak, Leitza eta Doneztebeko dantzariak, Zubietako joaldunak, Hendaiaiko Gaztelu zahar abesbatza, Amaia Zubiria, Xabier Euzkitze... 20:00etan Baluarte jauregian.

DONEZTEBE

Malerreka kantuz

Urriaren 5ean eliz aitari-antolatuta, 12:00etan.

Erakusketak

BERTIZ

Diana Iniestaren lanak ikusgai

Irailaren 3tik azaroaren 3ra *La presencia de lo no dicho* izenburupean Diana Iniestaren motipo, margo eta eskultura erakusketa Bertizko Natur Parkean, egunero 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 18:00etara. Informazio gehiagorako: www.dianainiestabenedicto.com

Ikastaroak

ARKUPEAK-EN ESKUTIK

Hainbat ikastaro aukeran

Irailaren 20tik 30era apunta daiteke Arkupeak Elkarteak antolatutako ikastaroetan: frantse- sa, informatika, argazki- laritza, margotzea, sendabelarrak, inausketa eta txertaketak, memoria tailerra eta psikoterapia ikastaroak aukeran.

ORONÓZ

Gure haziak lortu eta mantentzen ikasteko

Irailaren 24an Gure haziak lortu eta mantentzeko ikastaroa Oronozko batzargelan, 19:30ean.

Aurkezpenak

ORONÓZ

Tomate dastaketa eta gehiago

Irailaren 18an tomate dastaketa eta haziaren babeslekuaren aurkezpena Barraskilo elkarte- an, 18:00etan.

Hitzaldiak

ELIZONDO

Erdiz bizirik jardunaldiak

Irailaren 21ean Erdiz: Tokiko Garapena eta ingurugiroaren babesa

jardunaldiak Arizkune- nean. 10:30ean tokiko baliabideak eta gara- pena hizpide, Jakoba Errekondorekin. 11:45- ean parke naturalak: inguruaren babeserako eta tokiko garapenera- ko aukera? hizpide.

SARA

Sarako meategiak hizpide

Irailaren 28an Sarako meategien inguruan mintzaldia Eric Dupre eta Christian Saint Arromanekin, 21:00- etan Lur Berri gelan.

Ikuskizunak

ELIZONDO

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen saioa

Irailaren 29an Sentitu, pentsatu eta ekin ikuski- zuna Baztan frontoian.

SUNBILLA

Dantzari eta erraldoiak

Irailaren 28an dantzari eta erraldoien saioa frontoian, ilunabarrean.

Ospakizunak

ARRAIOZ

Eskola ttikien besta

PROPOSAMENA

AMAIUR

Gazteluan jarri duten mugariaren inaugurazioa

Nafarroako Erresuma defendatu zuten gazte- luak gogoan, Nafarroa Bizirik elkarteak muga- rria paratu du Amaiurko Gazteluan, eta horren inaugurazioa irailaren 21ean egingen da, 12:00- etan. Plazatik abiatuta kalejira egingen da, dan- tzari, bertsolari, musika, kantaz... alaituta. Gaine- ra, asteburu honetan errebestak ospatuko dituzte Amaiurren.



Bertsolaritza

LESACA

Txapelketa Nagusiaren simulakroa

Irailaren 21ean 19:00-etan Lesakan, Txapelketa Nagusiaren simulakroa Xabier Silveira, Julio Soto, Erika Lago-ma eta Eneko Fernandez bertsolariekin. Gai-jartzailea Iban Garro.

Bestak

URROZ

Sanmigelak

Irailaren 27tik 30era.

IGANTZI

Sanmigelak

Irailaren 21ean eta 22an eta 27tik 30era.

AMAIUR

Errebestak

Irailaren 20 eta 21ean.

DONEZTEBE

Errebestak

Irailaren 20 eta 21ean.

SENPERE

Ibarrungo bestak

Irailaren 27tik 29ra.

Azokak

SARA

Ortzegunero azoka

Irailaren 26ra arte.

Lehiaketak

ELIZONDO

Piriniar arrazako behien lehiaketa enkantea

Irailaren 21 eta 22an piriniar arrazako behien lehiaketa-enkantea.

Mendi irteerak

ZUGARRAMURDI

Donostiatik Oriora

Irailaren 22an Donostia-Orio ibilaldia egingen du Zugarramurdiko Atxuria Mendi Taldeak.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Arma, tiro, bammm!

JOAN MARI IRIGOIEN

Elkar, 2013

Arma trafikoa hartu du gaitzat Joan Mari Irigoienek *Arma, tiro, bammm!* izeneko bere azken eleberri hau egiteko, bi ikuspegi eskainiz aldi berean: batetik, Bereibarko familia bat (Gipuzkoa eta Bizkaia arteko alegiazko herria), arma-negozio bat daukana; eta bertzetik, Balad al Xams-eko (Ekialde Hurbileko balizko herrialdea) bertze familia bat, gerra ahaztu baten ondorioak nozitu beharko dituen; modu paraleloan kontatzen dizkigu batzuen nahiz bertzeen pozak eta nekeak, eguneroko kontu xeheak eta Historia markatzen duten gertakari handiak. Ez da ohikoa arma trafikoa gaitzat hartzea eleberri batean; irakurlearen gogo-bihotzak inarrosteko asmo osoz egin du Irigoienek, eta helburu horri begira erabili bere artearen tresna guztiak. Hiru ezaugarriok nabarmendu daitezke egilearen lanean: hizkuntzaren erabilera zaindu eta ederra, hainbat istorio sortu eta kateatzeko fabulazio-ahalmen itzela, eta gure gizarteko gai minberak ukitzeko kontzientzia etikoa.

Musika



Ez

HERRI OIHUA

Baga biga, 2013

Herri Oihua taldearen bigarren diskoak *Ez* izenburua du eta lan hau Bizkaiko Aldundiak eta Bilboko Udalak antolaturiko Banden Lehia 2012 lehiaketa irabazteagatik argitaratu dute. Herri Oihua taldeak, batez ere, metala eta rapa bateratzen zituen euren zuzenekoetan, hori zen egitasmoa. Bigarren diskoak metala eta rapa ere baditu, baina hori baino gehiago ere bada, orotariko soinuak erabiltzen baititu: rocka, metala, punka, hard-corea, rapa... Taldea 2011ko urtarrilean jaio zen Barakaldon (Bizkaia). Hasierako asmoa rap-metal estiloko kanta bat egitea omen zen, baina proiektua luzatu egin zen. 2011 hondarrean grabatu eta 2012an lehen diskoa kaleratu zuten, *Arjea*. Bigarren lan hau, berriz, aurtengo maiatzean eta ekainean grabatu zuen Herri Oihua taldea osatzen duen boskoteak: Iker Villa, Iker Aginaga, Lander Gormedino, Aritz Monedero eta Mikel Becerra.

Internet



Entzun! euskarazko aldizkari musikala

WWW.ENTZUN.COM

Entzun! euskara hutsean idatzitako lehendabiziko aldizkari musikala da. Gaur egun, bi euskarri komunikatibo desberdin baina bateragarri biltzen ditu bere baitara: *entzun.com* atari musikala eta *Entzun!* disko-liburua. Biek hala biek, hasierako asmo eta helburuei eusten diete, hau da, gure herriko musikaren isla eta bozgorailu izatea, noski, kanpoko musikak bazter utzi gabe, eta euskaraz. *www.entzun.com* euskarazko musika atari osatuena da. Milaka disko kritika, erreportaje, elkarrizketa, iritzi artikulu, dossier eta txosten eskaintzen dizkio irakurleari. Egutero gaurkotzen dira atariaren edukia, berriak eta kontzertuen agenda batik bat, eta bere datu basea gerroz eta handiagoa da eta irakurlearen esku dago uneoro, kontsultarako tresna ezin egokiagoa bihurtuz. Hasierako *www.entzun.com* teknologiarri dago-kionean zaharkituta gelditu zenean, 2011ko irailetik aitzinera, atari berria sareratu zuten, oraingo hau, hain zuzen.

Nire aukera



Emma SANZBERRO

Baztango herrietako eskoletan irakaslea

«Gure herri ttiki hauean eskola publikoa bizirik dago»

Baztango herrietako eskoletan irakasle ibiltaria da Emma Sanz Berro. Denbora libre «gutti» izaten omen du, baina aukera duenean «paseo bat ematea, irakurtzea, lagunekin egotea...», gus-tatzen zaizkio. Bidaiaztea ere gogoko du, baina onartu digunez, «herritik kanpo ez naiz gehiegi ibiltzen». Bisitatutako tokien artean, Lanzarote «aunitz» gustatu zitzaiola erran digu, eta hirien artean Bartzelona. Eta zein toki ezagutuko ote luke gustura? «Itsasoa duen leku bat», erantzun digu. Bidaia kontuak utzita, orain, Urdazubi-Zugarra-murdi eta Baztango herrietako eskolen besta prestatzen dabil, Arraiozko Guraso Elkarteko ki-dea delako, eta aurtengo besta hilaren 22an Arraio-zen egingen delako. Esko-la ttikiak hor daudela al-darrikatu eta ongi pasa-tzeko aitzakia polita izan-nen da, eta Emmak ere gonbitea luzatu du: «nahi duen guztia etortzen ahal da, besta irekia da». Argi utzi du «herri ttiki haue-tan eskola publikoa bizi-rik dagoela, eta nahiz eta murrizketak izan, guk ere eskola ttikien alde inda-rean segitu nahi dugula».

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONÓZ-MUGAIRI.

Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekua rekin. 16 milioi pezeta/100.000 euro. ☎ 948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- Aukera: 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

LESAKA. Albistur karrikan 140m²ko bifamiliarra salgai. 4 logela, 2 bainugela, terraza eta garaiea. Prezio ona. ☎692 748664.

LEITZA. Borda salgai, 8.000 metrorekin. Ura, bidea eta baimen guztiak. ☎948 510204 (gauez).

ELIZONDO. Pisua salgai. Santiago karrikan, argitsua, bista onak. 71,78 m². Garaiea, trasteroa eta igogailua. 3 balkoi, 2 logela, sukalde-jangela zabala, ekipatua. Material onak. 2007an eraikia. Estreinu gabe. 25 milioi pta (150.253 euro). ☎665 706228.

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net


SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako **3008 0080 56 0703304329** kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

SUNBILLA. Etxebizitza salgai. 2 logela, egongela tximiniarekin, komuna, sukaldea hornituta, berogailu zentrala, balkoia eta terraza, 2 trasteleku etxearen goiko solairuan, aukera haundiko etxea. Garaiea marra. Igogailua. Prezio onean. ☎628 473539.



BERA. Herri erdian pisua salgai. Oso egoera onean. Bizitzera sartzeko prest eta tasatutako prezioaren azpitik. ☎637 920545.

LESAKA. 66m²ko pisua salgai herri erdian. Bi trasteleku. Garaiea eta igogailuarekin. Berri-berria. 199.500 euro. ☎657 708866.

ORONÓZ-MUGAIRI.

Etxea salgai. 2 solairu eta baja. 5 logela, egongela, bainugela osatua, sukaldea eta sukalondoa. Ere mu haundia. Arrazoizko prezioan. ☎606 704615.

DONEZTEBE. Leitzako errepidean, 66an, 90 m²ko pisua salgai. Sukalde eta komuna mobleztatua. 3 logela eta egongela mobleztatu gabe. Bi balkoiekin eta hauetako bat itxita. 115.000 euro negoziagarriak. ☎650 149730.



LESAKA. Frain auzoan baserria lur eremuarekin salgai. ☎616 729549/667 213232.

ETXEBIZITZAK

erosi

Zaharberritzeko etxe edo **borda** erosiko nuke. ☎620 307548 (Arkaitz).

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

BERA. Pisua errentan emateko. Mobleztatua. Hiru logela. ☎626 774582.

ELIZONDO. Pisua errentan eman edo saltzeko. Mobleztatua. Hiru logela. ☎676 707620.

BERA. Agerra auzoko Urruñako Plazan pisua errentan eman edo saltzeko. Mobleztatua. 90 m². Egoera ona. ☎659 962502.

IRUÑEA. Zolina kalean, pisua errentan emateko. 3 gela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Unibertsitate publikotik 2 minutara eta pribatutik hurbil. Sadar futbol-zelairan

ondoan. Ikasleendako aproposa. Salgai ere badago. ☎626 389226.

ELIZONDO. 90m²ko pisua errentan emateko. Mobleztatua dago: 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. Baita garaie plaza eta trastelekua ere. ☎680 347407.

IRUÑEA. Zaragoza etorbidean logela bat errentan emateko. Unibertsitate publikotik 5 minutura. ☎620 209663.

ELIZONDO. 3 logelako pisua errentan emateko. ☎650 283322.

LEITZA. Herri erdian, pisua errentan emateko. Igogailuarekin. ☎948 510591.

DONEZTEBE. Elizagibela karrikan 90 m²ko pisua errentan emateko. Sukalde, egongela, 3 logela, komuna, bainugela eta bi balkoi. Berogailua eta igogailuarekin. Mobleztatua. ☎680 106936.

LESAKA. Pisua errentan emateko. Sukalde, komuna, 2 logela, egongela, trastelekua sukalde ondoan. Mobleztatua, sartzeko prest. ☎618 962791.

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

LESAKA-BIDASOA. Pisu edo etxe ttiki bat lur pixka batekin errentan hartuko nuke. Hilabetean 350-400 euro ordaintzeko prest. ☎636 777478 (Deitu 16:00etatik aitzinera).

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(Abuztuaren 30etik irailaren 6ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 43 € (+1,00)

Zerri gizena
1,533 € kiloak. (+0,020)

Zerramak:
0,890€ Kg/bizirik. (+0,020)

**BEHIKIA****Aretze gizenak:**

Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,31

1.koa 4,05

2.koa 3,90

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,37

1.koa 4,09

2.koa 3,95

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak

(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

uruxak 135,00

idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:

uruxak 155,00

idixkoak 165,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,70/2,92

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 8,30/8,40

8-10 kilokoak: 6,90/7,60

LESAKA. Pisua errentan hartu nahi da. 350 euro ordaintzeko prest. ☎647 233690.

GARAJEAK/LOKALAK errentan emateko

ETXALAR. 60 m²ko lokal bat komertziorako errentan emateko, prezioa negoziatzeko. ☎669 686626.

LESAKA. Lur-azpiko bi garaje errentan ematen dira. Bat Bittiria karrikan eta bestea Albistur karrikan. ☎618 962937.

LURRAK/ORUBEAK salgai

ETXALAR. 1.500 m²ko lur eremua salgai. Zelaia da. ☎948 635188.

ZERBITZUAK zurgindegiak

ARANTZA
Zurgindegiak
• Klase guztietako zurgin lanak
• Eskatu aurrekontuak konpromisoak gabe
Jose Miguel Izquierdo
Tel: 948 634 068 - 447 818 144
Gernika - ARANTZA

ZERBITZUAK denetarik

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultak eskatu ordutik
☎ 948 272011 (RUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urutia 42-2D - ELIZONDO

LANA eskariak

Neska gazte hezitzailea prest dago goizez nahiz arratsaldez haurrak zaintzeko. Auto propioarekin. ☎637 835236.

Gizonezkoa lan bila: lorrezaintzan, iturgintzan, elektrizitate lantxoak egiten, zerbitzari lanean, animalien zaintzan... aritzeko prest dago. ☎651 881863.

Emakumea prest dago haurrak zaintzeko, adine-

ko pertsonak zaintzeko, etxeak garbitzeko edo beste edozertarako. Auto propioarekin eta disponibilitate osoarekin. ☎667 942138.

Emakumeak garbiketan lan eginen luke: bulegoak garbitzen, portalak... ☎647 233690.

Emakumea interna bezala lanean aritzeko prest eskualde osoan (etxea garbitu, sukaldatu, pertsonak zaindu...). Esperientziaduna, berehala hasteko prest. ☎608 655199.

BAZTAN, MALERREKA, BORTZIRIAK. Interna bezala pertsonak zaindu eta etxea eramateko emakumea prest dago; esperientziaduna eta erreferentzietekin. ☎693 965208.

LANA

eskaintzak

IRUÑEA. Neska bat behar da dendan eta obradorean lan egiteko. ☎948 220618.

BERA. Sukaldari bat behar da jatetxean aritzeko. Esperientziaduna. ☎948 631658/650 981950.

ZUGARRAMURDI. Herriko Etxeko Ostatuan zerbitzaria behar da. Emakumezkoa edo gizonezkoa. Euskaraz eta frantsesez dakiena. Larunbat eta igandetan lan egiteko. ☎948 599482.

Etxalarko Benta hotelean **administraria** behar da egun erdiz lan egiteko. Curriculum hotelera eraman edo info@etxalar.com helbidera bidali.

MOTORRAK

tailerrak

GANIX
Tallerra
☎ 948 63 06 69
Bilbo (RUÑA)

BAZTAN-BIDASOAN INBERTITU NAHI DUTENENTZAT AUKERA PAREGABEA!

ARANTZAN, hiri- eta landa-finken enkantea

2013ko irailaren 25ean, goizeko 10etan egingen da, Irufeko 1. Instantziako 5. Epalategiaren C Sekzioan (86/2012 konkurtoa), Irufeko San Roque, 4 4. solairuan.

Enkantea aterako diren finken artean bada baserri bat erreka bazterrean, lur-sailak herri-kaukoaren inguruan eta bertze hainbat lursail paraje hauetan: Egibelza, Errotalde, Buntza, Emizaretta, e.a.

Informazio gehiago nahi izanez gero, galdetu hemen: albismendi@gmail.com

MOTORRAK

salgai

Nissan Patrol luzea, 6 zilindrokoa salgai. ITV a pasatua. ☎616 198016.

Renault Master salgai, 2002koa, baskulantearekin. ☎616 243530.

Mercedes Clase A 160 salgai. 105 CV, 2000. urtekoa, 131.000 kilometro, klimatizazioa, azken ITV 2013ko maiatzean. Apartekua garajea izan du beti. 2.700 euro. ☎948 637021/634 546512.



Yamaha JOG-R scooterra salgai. 2006 urtekoa, 800km. 500 eurotan. ☎619 884121.



Hyundai I30 1.4 GLS FDE Confort CV 1396, grisa,

BAZTAN MOTOR S.L.
TXAPA ETA PINTURA | MEKANIKA | ELEKTRIZITATEA
Orain Quad, ATV, UTV, Scooter eta Boogyak lanerako eta aislarako
G GOES
Zaldubia Industrialdea 31730 IRURITA
T. 948 45 21 19 • 948 58 06 55

SANTESTEBAN TAILERRAK
14.950€
CLIO IV DYNAMIQUE
1.5 DCI 90 CV
KM 0
Matrikulatu berria
4 urteko garantia
Klimatizadorea, GPS...

salgai. 2009koa. 36.000 KM. Gasolina. 6.500 euro. ☎948 581406/696 079785.

ANIMALIAK

oparitzeko

Bi arratoi zakurkume eta katu bat, ttikia, opari emateko. ☎948 580231.

Katakumeak oparitzeko. ☎619 988383.

Bost urteko **setter ingeles arra** oparitzeko zaintzeko denbora faltatagatik. ☎615 711356.

Bi arratoi-zakurkume oparitzeko. ☎646 298568.


DENETARIK

salerosketak

ORONÓZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



Sagardoa egiteko **tolarea** (60 cm) eta **matxaka** salgai. Oso egoera onean. Kupela opari. ☎692 748664.



Egoera oso onean dau den **bi altzari** salgai, egurrezkoak biak. ☎660 870536.



Pinuak, haritza, pagoak erosten ditugu. Pagoa eskura ordainduko da. ☎678 099422.

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez



Zorionak Etxarlako **KEMEN** **ANSALAS ARBURARI** irailaren 12an 8 urte bete dituelako. Muxu aunitz kirolari, famuldiakoen partetik.




Leitzako **ROSARIO MONACOK** urriaren 7an 84 urte beteko ditu. Muxu haundi haundi bat Aurtizko familiaren partetik eta bereziki Leiane birbilobaren partetik. Ongi pasa eguna eta berendu goxo-goxoa prestatu.




Berako **XUBAN LASAGA** eta **UNAX ERKIZIAK** urtea beteko dute irailaren 16an eta 24an. Zorionak familia guztiaren partetik.



UNAX URSUA QUESADAK urtea bete du irailaren 5ean. Zorionak **UNAX!** Urtebete joan zaigu eta **UNAX** handia eta azkarra egin zaigu, Suhar harrapatuko duzu! Besarkada bana zure anaia, guraso eta amabixi-aita-txi, aiton-amona eta izeba-osabaren partetik.



Lesakako **INTZA SAGARDIA OIAR-ZABALEK** irailaren 18an bere lehen urtea beteko du. Zorionak tiki, aita eta amabixoren partetik.



Gure etxeko kukuxuak urtea bete du irailaren 10ean. Aunitz urtez **NINBE!** Muxu goxo-goxo bat familia guztiaren partetik, eta bereziki izebaren partetik!



Alkaiagako **OIER GOIENETXE** **MARITXALARREK** irailaren 23an 6 urte beteko ditu. Zorionak loritz, lizaro eta gurasoen partetik. Zorionak maitia!



Etxarlako **OIER AGINAGALDE** **IPARRAGIRREK** irailaren 26an 4 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoaren partetik.



Berako **IRIATI TELLETXEA** **IRIARTEK** eta **MALEN IRIARTE PLAZA** lehengusinek urtea bete dute irailaren 5ean eta 15ean. Zorionak etxeko bi printzei. Muxu potolo bana familia guztiaren partetik.



Goizuetako **ANARTZ LUJANBIO NARBARTXK** 5 urte beteko ditu irailaren 25ean. Zorionak arrantzale! Muxu goxo-goxo bat familia eta bereziki amabixoren partetik. Ongi pasa!



Etxarlako **AMETS SANZBERRO LUJUA** joan den irailaren 11n 3 urte bete ditu. Zorionak Kaiet, amatto, attatto, amabix eta ttanttan partetik. Muxu pila pila patata tortila!!!!



Zugarramurdiko **MARKEL OTXOTEXO MIHURAK** 2 urte bete ditu irailaren 10ean. Zorionak eta muxu pila bat familiaren partetik pexoxo!




Aizoango **JANIRE REMIREZ PERURENAK** irailaren 29an urteak beteko ditu. Zorionak aita, ama, Iria ahizpa eta Iturrengo familiaren partetik. 9 muxu!

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58 · info@ttipi.net edo www.ttipi.net

Gazteentzako ohea eta altzaria salgai. Egoera eta prezio oso onean; ohea 105 cm eta 3 kajoi. ☎626 097128.



Sagardoa egiteko **tolarea** salgai. Ezaugarriak: tola-re karratua eta honen oina altzairu herdoigaitza (acero inoxidable). Egoera onean eta hagitz praktikoa. ☎696 542056.



EZKURRA. Alkaziazko piketeak salgai. ☎ 600 699266.

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287/ ☎699 461394.

DENETARIK

galdu-aurkituak

Mitsubishi markako llabe-roa edo giltzatak duen kotxeko **giltza bat galdu** da Sunbillako bestetan. Aurkituz gero, deitu faborez. ☎630 045413.

DENETARIK

zerbitzuak

Diana Iniestarekin ikastaroak urritik maiatzera. 6-12 urte bitarteko haurrentzako: 1. Ongi portatu! (psikologia eta artea); 2. marraztu eta pintatu (teknika desberdinak) eta 3. ingeles ikastaroa. 12 urtetik goitiko gazte eta helduentzat pintura eta marrazki ikastaroa. Begiratu ordutegiak. <http://pintayre.pinta.blogspot.com>, dianainiesta@hotmail.com edo 948 453478.

Yoga ikastaroa Beran. Astearte eta ortzegunetan, 08:30etik 10:00etara eta 19:00etatik 20:30era. Lehenengo klasea doan. Ariketa fisikoa, oreka emozionala eta arnaske-ta ariketak. Erlajazioa eta meditazioa. ☎627 395246.

DENETARIK
bestelakoak

Lan tresnak berreskuratu nahi ditut. Norbait mesedetan utzi eta ez dit itzuli. Konpresore elektrikoak, Kango markakoa, puntero taladro eta palarekin. Hiru hariko 30 m luzeko alargadera. Tresna dauka-

nak badaki ez dela berea. ☎669 664026.

BERA. Irailetik aitzinerat Manex 16 urteko beratar-rrak, Barañango Alaitz institutura joan-etorria egin behar du. **Kotxea konpartituko** dugu? ☎697 506214.

EGUTEGIAK

Koloretan bi aldeetatik
8,5cmx5,5cm
300g
Disenua barne
Inprenta barne
Garraioa barne
BEZa barne
Epea: 10 lan egun

HEMEN
2013ko EGUTEGIAK
2013ko EGUTEGIAK

25061€
50065€
100070€

ttipi-ttapa 948 635 458

iraileko
zk. saritua
2.288

Zonaldeko produktuekin osatutako lotea

Saritua hilaren 30a baino lehen deitu behar da Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatera

948 63 52 54

ADI! 2013ko EKAINAREN 1etik AURRERA DERRIGORREZKOA DA ETXEBIZITZAREN ETIKETA ENERGETIKOA ESKURATZEA



➤ Zer da etiketa energetikoa?

Etiketa honen bitartez bultzatu nahi dira energetikoki efizienteak diren eraikuntzak eta energiaren aurrezpenean egiten diren inbertsioak. Izan ere, 2013ko ekainaren 1etik aurrera edozein etxebizitza edo lokal **saldu** edo **errentan** emateko, beharrezkoa izanen da Etiketa Energetikoa izatea.

➤ Zer adierazten du etiketa energetikoa?

Eraikuntzaren kontsumo energetikoa

- A Kalifikazioa – Kontsumo txikiagoa (Isolamendu bikaina)
- G Kalifikazioa – Kontsumo handiagoa (Isolamendu ezin txarragoa)



➤ Zer gertatzen da ez baldin badut etiketa energetikoa edo daukadan etiketa ez datorrenean bat isolamenduarekin?

- Etiketa eta isolamendua ez datozenean bat **601€** eta **1.000€** arteko isuna.
- Etiketarik ez izanez gero **1.001€** eta **6.000€** arteko isuna.

➤ Nola kontrolatzen da etiketa energetikoa?

Nafarroako Gobernuaren obligazioa da ziurtagiriak kontrolatzea.



Betiko aurreratu egin da eta lortu du bere leiho guztiek **A mailako** Efizientzia Energetikoaren Etiketa (efizientziarik handiena) izatea.

Eta nobedadeekin segituz,

Betikok dagoeneko baditu **A+++** etiketa duten leihoak, European 2020rako eskatuko duten gutxieneko maila soberan gainditzen duten leihoak.

Noizbait galdetu diozu zeure buruari nolako efizientzia energetikoa duten zure leihoak, A-B-C-D-E-F-G?

Badakizu zenbat aurreztuko zenuen urtean **A** eta **A+++** mailako efizientzia energetikoa duten leihoak izanez gero?



Etorri gure instalazioak bisitatzera eta **erakutsiko** dizkizugu **A** eta **A+++** mailako leihoak eta, bidenabar, etxean aurrezpenik handiena lortzeko azterketa energetikoa egingen dizugu.



P.V.C. eta aluminio zurgindegia

**Leihoak | Kontraleihoak | Sarrerako Ateak
Itxidurak | Pertsianak | Moskiterak**

Ordoki ind. • ARIZKUN | T. 948 453 259 | F. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com | www.betikopvc.com

ttipi txartela

ttipi-ttapa

PIU IRIARTEA IGARTZA
72675333-G
04/2014
123456

**ttipi txartelarekin
beti irabazten da !**

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK

-%25eko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

eskatu zurea 948 63 54 58

Informazio gehiago: **telefonoan**
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidela 7, 31770 LESAKA
Tel. 948 635 458 | Fax 948 635 457
info@ttipi.net | www.ttipi.net

deSKONTUak

ZALAIN MOTOR



BERA | %5 errekanbioetan

edurne
arropadenda

BERA
%5, 30etik gorako gastuan

KATEA-BIKE

BERA | %5 konponketetan



Urdi Lesaka

LESACA | Pertsona 1: %10 matrikulan 2 pertso-
na: 1 go pertsonak matrikula doan, 2. pertsonak
habele bat doan, (abuztuak 31 arte)

MAIMUR

LEITZA
%10 oparitzeko artikuluetan



Nekazari Zerbitzuak
Vicente Arcoana Arcoana
DONEZTEBE
%5 zakur eta katuen pentsuan

zozKetak

597 ALEKO IRABAZLEAK

1- KAMISETA BAT | Onddo ta punto
M^a Jesus Torres | **ETXALAR**

2- ARKUPE LOTEA
Maddalen Garbisu | **BERA**

3- 2 SARRERA | Zugarramurdiko Sorginen lezeak
Amaia Razkin | **ETXALAR**

4- 2 LIBURU | Ttartalo argitaletxeak
Baobab zuhaitza | Josu Goia | **BERA**
Tximinoak | Izaskun Danboriena | **AZPILKUETA**

5- 2 SARRERA | Lesakako Udal kiroldegia
Santiago Telletxea | **LESAKA**

6- 2 SARRERA | Aquarium
Eduardo Torre | **BERA**

KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com



MARTIKO LOTEA
www.martiko.com



2 SARRERA - HENDAIA
Bertsolari Txapelketa Nagusia
www.txapelketanagusia.eu



2 LIBURU
Ibaizabal argitaletxea
www.ibaizabal.com/



GARTXOT DVDa
Elkar argitaletxea
www.elkar.com



2 SARRERA
Aquarium
www.aquariumss.com

